

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Urroz Meliton Manzanas baino
aproposagoa baitzen IÑAKI ALTUNA > 11

ROBERTO GONZALEZ DE VIÑASPRE:

«Dakiguna eta gure onena ematen
saiatzen gara euskararen mesederako» > 22

2019ko ekainaren 29a | XIII. urtea • 626. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ALTXORRA DA GORPUTZA EZAGUTZEA

HILEKOA, MINETIK ETA TABUETATIK URRUN, GORPUTZAREKIN KONEKTATZEKO ETA GORPUTZA EZAGUTZEKO ATE HANDI
BAT IZAN DAITEKE. HORRETAGO, BAINA, ZAMA ERANTZI ETA KONTZIENTZIA JANTZI BEHAR. > 12 IRAZUSTA



Arundhati Roy, Indiako hauteskundeen emaitzez eta herrialde haren etorkizunaz 04

Suedia: Klima larrialdiaren eraginez, hegazkina hartzea, lotsagarri 08

Hilekoaren kultura: gorputza ezagutzeko baliabide aparta 12
Sarean 18

Elkarrizketa: Roberto Gonzalez de Viñaspre 22

In fraganti: Irati Alcantarilla 28
Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Betoak apurtzen
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Gustukoak eta jarraitzaileak
- 11 **Iñaki Altuna:** Urroz Meliton Manzanas baino aproposagoa baitzen
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Arantxa Urbe:** Laudorio merkeak
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Sua
- 27 **Antton Izagirre:** Makilak
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Irtenbidera
- 30 **Izaro Goienetxea Urkizu:** Musika eta teknologia



Gurean askotan errepikatzen dugu estatuaren jarre-
ra ez-demokratikoa dela independentistak sortzeko la-
nabes garrantzitsuenetako bat. Baieztapen hau egia
izan daitekeen arren, ez dezagun ahaztu estatuaren ja-
rrera ez-demokratiko hori bera eta horrek sortzen
duen ziurgabetasuna direla independentista asko
etxean geratzera bultzatzen dituen. Geure buruari
ondorengo hipotesi/galdera egin diezaiogun: estatu
espainiarra zein frantziarra autodeterminazioa onar-
tzeko prest balira eta Euskal Herriari inolako mehatxu
eta zigorrik gabe independente izaten utziko baliote,
zer erabakiko luke jendeak? Zeren arabera hartuko lu-
ke erabaki hori? Galdera horren erantzunak lagundu
gaitzake independentziazako bide orri eraginkor bat
marrazten. •

Aztertua eta ondorioztatua dago; arerioa, etsaia,
demonizatu egiten dugu eta ariketa horrek izugarri zailtzen
du etorkizun batean konponbidea lortzea

«Nola esan Indiako bozketa justua izan zela? Ferrari baten eta bizikleten arteko lasterketa bat izan zen»

Indian, harakina edo politikan aritzen den genozida bat bazara, baikor izateko arrazoi guztiak dituzu». Arundhati Roy idazleak 2002an idatzitako hitzak dira. Narendra Modi garai hartan Gujarat estatuko lehen ministroa zen eta 2002an egin ziren musulmanen aurkako erasoe-kin nahastuta zegoen: gutxienez mila hildako izan ziren.

Modik berak bere errugabetasuna aldarrikatu izan du, baina Royk agintariaren etorkizunari buruz egin zuen aurreikuspena erabat zentzuzkoa zela argi utzi du denborak. Indian egin diren azken hauteskundeetan BJP Bharatiya Janata Party alderdiak suntsitu egin ditu aurkari guztiak, hinduen nagusitasuna lotsarik gabe aldarrikatzen zuen mezu bati esker. Orain bere bigarren agintaldia zuzenduko du bere eskuetan inoiz baino botere gehiago daukala.

Idazleak komatxoak erabiltzen ditu «munduko demokraziarik handiena» idazteko, horixe baita hedabide askok Indiarekin lotzen duten espresioa. Berak dio demokrazia hori aldi berean mende ezberdinetan bizi dela, tradizioaren, kasta sistemaren eta turbokapitalismoaren artean harrapatuta. Kontraesan horiek adierazten ditu Modi lehen ministroak beste inork baino hobeto: pertsonaia jatorra eta aldi berean nahi propioak dituen, egun batean «Hindustan» (hinduen erlijioaren arabera antolatutako lurraldea) berpiztuko dela agintzen duena eta, hurrengoan, erreforma neoliberalak agintzen dituen; gaur egun 16.000 dolarreko trajeak janzten dituen ume

chaiwala (kalean tea saltzen dutenak) mitikoa.

Modi ez du aipatu ere egiten Royk bere bigarren eleberrian, “The Ministry of Utmost Happiness” (Zorion Maximoaren Ministerioa) izenburukoan, baina agintariak bere herrialdeari buruz duen ikuspegia presente dago liburuan: «Agian ez nuke esan beharko, baina eleberri batek etsairen bat izan badezake, liburu honen etsaia ‘nazio bat, erlijio bat eta hizkuntza bat’ dioen ideia da, Modiren ideologia ‘hindutva’-ren lelo nagusia».

“The God of Small Things” (Gauza txikien Jainkoa) bere fikziozko lehen liburuarengatik Booker saria eman zioten 1997an Royri eta oso ezagun egin zen. Berak garbi utzi zuen ez duela «liburu bat idatzi zuen emakume eder» moduan ezagutua izan nahi. Ez zuen gustuko «India modernoaren» enbaxadore kultural bihurtzea ere. Gaur egun bere jarduera politikoarengatik ere ezagun egin da: espetxean eduki zuten sedizioa leporatuta, gerrillari maoistekin ibili zen oihanean eta planeta osoko mugimendu politikoekin bat egin izan du.

Posta elektroniko bidez hitz egin dut Royrekin hauteskundeetako emaitzei buruz, Modiren esanahiaz eta «hain mundu nahasian» idazle batek duen zereginaz.

Zure idatzietan zein munduan gauza asko aldatu dira, baina Modi pertsonaia izugarri moduan ageri da beti zure lanean. Zuk aurreikusi bezala tragedia bat garatu al du bere agintaldiak ala bere buruzagitza zerbaitetan harritu zaitu? Modiren lehen agintaldia nik aurreikusi bezala joan zen oro

har, baina nik espero ez nituen bideetatik ere bai. RSS Rashtriya Swayamsevak Sang (Elkarte Patriotiko Nazionala) indar profaxistaren langile zintzo moduan ariko zela aurreikusi nuen, hau da, BJP alderdiaren langile gisa, India herrialde hindu bat dela deklaratzeari helburu duten indarren morroi. Musulmanen aurkako erasoak espero nituen, kristauen eta komunisten demonizazioa, erasoak egiteko eta dalit (paria) ukiezinak hindu bihurtzeko joerak. Hori guztia gidoian idatzita zegoen. Idatzita iragarri nuen eraso terroristaren bat edo gerra bat hauteskundeak egin aurretik izango genuela. Espero nuen konpainia handiek Modi ondo hartzea, pribatizazio politikak... Baina aurreikuspenetik at utzi nuen bere desmonetizazio politika: telebistan iragarri zuen gau batean, Indiako monetaren %90 lege kanpoko izatera pasatzen zela, diru beltzaren aurkako borrokaren izenean. Jendearentzat oso kolpe gogorra izan zen, baina horrek ez du saihestu herritar askok berri botoa berari ematea.

Zerbaitek beldurtu al zintuen?

Modi indartuta itzuli dela esango nuke, Jainkoak bezala gurtuta. Fenomeno psikologiko zoragarria da: mina plazer bihurtuta, nazioaren ongiaren izenean. Garaipen ikaragarria da, kasta, klase, eskualde eta etnia guztietako boto-emaelek eman diotena. Bere izena builaka esaten zuten milaka jarraitzaileen aurrean emandako hitzaldian, beldurtzen nauten bi gauza esan zituen: 2019ko bozketak Indiaren laizismoaren heriotza ofiziala berresten duela, lehenengoa.

ARUNDHATI ROY

IDAZLEA

AEBetako «The New Republic»

hamabostekariak Arundathi Roy

idazlearekin hitz egin du Indian egin berri

diren hauteskundeetan izan diren

emaitzen inguruan. Etorkizun iluna

iragartzen du.

Samuel Earle (New Republic)

Inongo alderdi politikok ez du egin laizismoaren aldeko kanpainarik, berak adierazi zue-
nez. Hori egia da: oposizioko
alderdi garrantzitsuenak, Kon-
gresuko Alderdiak, ez zuen
musulman hitza erabiltzeko
ausardiarik izan, 'musulmanen
aldeko' deituko ziotelakoan.
Era horretan, lintxamenduak,
musulmanen aurkako sarras-
kiak, isilean gordeta geratu di-
ra. Gehiengoak, nazionalismo
hinduak, irabazi du.

Bi gauza beldurgarri aipatu dituzu. Bigarrena?

Beldurtzen nauen bigarren gauza bat ere esan zuen: behe-
ko kastak ordezkatzeko omen
dituzten alderdiei erabat iraba-
zita, BJP-k kasta sistemari bera-
ri irabazi diola. Berak esan zue-
nez, bi kasta baino ez ditu
onartzen, pobreak eta pobre-
ziari amaiera emateko lanean
ari direnak. Horrela, arlo sozia-
lean BJP alderdia etsaiaren aur-
kako borrokan aritzen bada, ar-
lo ekonomikoan badirudi ez
dagoela etsairik.

Bederatzi pertsonak 500 mi-
lioio herritar pobreenen adina-
ko ondasunak dituzten lurral-
dean, aberatsak misiolariak
dira. Ikuspegi izugarria da.
Hautatua izanik, pobreei ogi
apurrak botata Modi Jainko-
aren estatusera iritsi da; gosea
pasatzen duten nekazaritza
eremuetako familiei gas-botila
bana oparitu die -2.000 erru-
pia edo 30 dolarreko oparia se-
kulako zorrak dituzten nekaza-
rientzat-, ehunka mila lagunek
beren buruaz beste egiten du-
ten herrialdean. Erretorika ol-
darkor hutsez milioika langa-
betu gazte armatuta, Modik
politika ekonomiko bera apli-
katzen jarraitzeko eskubidea
irabazi du, egungo arazoak era-



Argazkiak: GAUR8

Arundhati ROY

Meghalaya estatuko
Shillong herrian jaio zen
1961ean. Delhiko
Arkitektura Eskolan
egin zituen ikasketak.
Bere konpromisoak
eragin du nazioarteko
eragile askorentzat
erreferentzia izatea.



gin dituen politika ekonomiko
bera, alegia.

Jadanik kastarik ez dagoela
esatean, Narendra Modi adie-
razten ari da berak eta RSS el-
karteak egin dutela dalitak de-
fenditzen aitzindari izan zen B.
R. Ambedkarek lortu ez zuena:
kasta sistemari amaiera ema-
tea. Esaldi kezagarria da, Am-
bedkarek berak esan zuenez,
hinduismoa kasta bat baita.
RSSk eta BJPk hauteskunde-
tan egin dutena kasta sistema
indartzea izan da: kastaren
araberako zatiketa kudeatu,
kasta eta azpikasten arteko
kontraesanak baliatu eta bat
bestearen aurka jarri sekulako
zehaztasunez.

**Badirudi zentro politikoa be-
re irudiaren arabera birdefi-
nituta duela Modik.**

Hauteskundearen ondorengo
egunetan, nazioarteko pren-
tsak egindako kritiken ondo-
rioz, Modik gutxiengoak ba-
besteari buruz eta Indiako
Konstituzioa betetzeaz hitz
egin zuen hitzaldi batean. Bez-
peran berak eta bere alderdiki-
deek esandakoaren kontrakoa.
Oportunismo hori RSSren beti-
ko taktika da. Modiren harro-
puzkeriak BJP alderdia bera
ilundu egin du eta hori interes-
garria da. Bere aberastasun ika-
ragarriak, alderdiaren baliabi-
deak... dena erabili da monarka
koroatzeko. Argitaratu berri da
Modiren bizitzari buruzko pe-
likula hagiografiko barregarri
bat. Gezurrez beteta dago. Argi
dago filmak bere harropuzke-
riari lagunduko diola. Edonola
ere, Modi bakarrik izango da
errege, RSSk berak hor segitzea

nahi duen bitartean. RSSren
botere berria da normaltasun
berria.

Normaltasun berri horri au- rre egiteko moduren bat izan- go al da agintaldi berrian?

Nola egin aurre fenomeno ho-
ni? Une honetan Indiako ipa-
rraldean gainerako alderdi po-
litiko gehienek egoera
negargarria da. Kongresuko Al-
derdia garaituta dago, komu-
nistak suntsituta daude, dalite-
kin bat egiten duten
formazioak ere erabat ahuldu-
ta geratu dira. Oro har, oposi-
zioko alderdiek jarrera doilorra
eta harroputza izan dute be-
raien artean: beren ontzia hon-
doratzeko ari zela, elkar ahul-
tzen aritu ziren. Alderdi horiek
galdera serio batzuk mahaigai-
neratzea espero dut. Diziiplina

handiko 600.000 koadro ditu RSSk, formazio onekoak. Edozein unetan hedatu ditzake. Beste alderdiek ia koadrorik ez dute. Bozketan, BJPk beste alderdi guztiek batera baino 20 aldiz diru gehiago izan du. Hurrengoan, seguru asko, besteek halako 50 izango du. Eta Indiako hauteskundeetan gero eta garrantzi handiagoa du diruak, ikuskizunak, hedabide handien eta sare sozialen kontrolak. Herrialde honetako instituzio guztiak Modiren borondatera makurtu ziren. Baita Hauteskunde Batzordea bera ere. Diru horrek ahalbidetu die milaka informatikari, datu-analista eta sare soziale-tako ekintzaile erostea. Whatsappeko milaka talderi oso ondo aukeratutako propaganda banatzen zieten, pertsona bakoitzari egokitutako mezuak, sektore, eskualde, kasta eta klase bakoitzari egokituta, barruti bakoitzeko mahai bakoitzari egokituta.

Halere, «munduko demokraziarik handiena» esaten diote askok Indiakoari.

Ez da nire gustuko espresioa. Horrelako dirutzak, saltzea erabakitzen duen edozein gauza sal dezake. Kasu honetan, izurrite bat sortzeko kemena zuen produktu toxiko bat. Kanpainak ez zuen ukitu garrantzizko konturik, ez klima aldaketarik, ez krisi ekonomikoa, ez hezkuntza eta ez osasuna. Erdi Aroko kirtenkeria toxikoa baino ez. Nola pentsa dezakegu bozketa justu bat izan dela? Ferrari baten eta bizikleten arteko lasterketa bat izan zen. Eta hedabideek Ferraria txalotzen zuten, gauza arrarorik ikusi ez balute bezala. Orain Ferraria lausengatzen dute goraipame-



nak eginez, bizikletei iseka egiten dieten bitartean, emaitza txarrak izan dituztelako.

Zerbait lor dezake herritarren haserreak?

Ditugun alderdiek ez dute lan erraza izango horrenbeste diru eta gorroto duen makina izugarri horri aurre egiteko. Uste dut herritarren haserreak halako batean makina hori izorratu egingo duela. Ez naiz ari iraultza bati buruz, erupzio batez baizik, gobernuz kanpoko erakunde bihurtu ez diren giza mugimenduak berriz agertzeaz.

Hori etorri egingo da. Eta energia berria sortuko du eta mendean hartu ezin den oposizio modu berri bat jaioko da. Jolas berri batean ikasi beharko du oposizioak, iruzur egitea onartzen ez duen jolas berrian. Hauteskunde hauek, askok demokrazia ariketa erraldoi moduan agurtzen dutena, guztiz kontrakoa dira: ustez demokrazia denari egindako iseka.

BJPren arrakastak ba al du zerikusirik Erresuma Batuan, AEBetan eta Brasilen izan diren aztoramen nazionalistekin?

Askok RSS elkarteak Indian 95 urte daramatza helburu horren atzean lanean. Bere esku ditu munduko gainerako faxistek eta zurien nagusitasunaren aldekoek ere ez dituzten sistematik.

2009an argitara eman zenituen saiakera batzuk eskaini zenizkien «itxaropena eta arrazoia bereizten ikasi zutenei». Zein da itxaropenaren eta arrazoiaren arteko harremana gaur egun? Biak bat egiten ari direla dioen seinalerik ba al dago?

Hauteskunde kanpainaurrean aplikatu nuen doktrina hori. Begirale guztiek BJPrek garai-pena aurreikusten bazuten ere, guk esaten genuen galdu egingo zuela. Jendaurrean esan nuen, emaitza hori zalantzan jarri beharra sentitu bainuen. Batzuk BJPrek garaipenaren beldur ziren eta publikoki esan zuten alderdi horrek irabaziko zuela. Nire ustez, herriaren borondatea antzemateko gauza direla adierazi nahi zuten. Horretarako ez zen asko behar, airea arnastea besterik ez. Baina aurreikuspen triste horiek propaganda indartu baino ez zuten egin, saihetsezina zela sinetsaraziz. Ondorioz, itxaropena eta arrazoia bereizten ikasi genuenok oposizioak irabaziko zuela esan genuen behin eta berriz, hitzarmen sekretuak eta bidezko estrategiak zituztela horretarako. Itxaropen zoro hori baita, hain zuzen ere, azkenean jendea amesgaizto honen aurka altxatzea eragingo duena. Itxaropena eta arrazoia bereiztuta eta erresistentzia eta arrazoia bereiztuta. Horixe behar dugu.

Indiako giroa gero eta militarizatuago dago. Modik ahal izan zuen guztia egin zuen kanpainan sentimendu hori indartzeko: bat egin zuen indar armatuekin eta ustezko «nazioaren etsaiekiko» beldurra piztu zuen. Zein posizio du horrelako giro batean idazle batek?

Ahula esango nuke. Eta oso arriskutsua. Nazionalismo hinduaren aurka daudenek ere «hinduismo hobe» bat proposatzen dute, «nazionalismo hobe» bat, oso sinesgarritasun gutxirekin. Geure garunak Indiako banderan biltzen hasiak

«Eleberri batek etsairen bat izan badezake, liburu honen etsaia ‘nazio bat, erlijio bat eta hizkuntza bat’ dioen ideia da, Modiren ideologia hindutvaren lelo nagusia»

«Modi indartuta itzuli da, Jainkoak bezala gurtuta. Fenomeno psikologiko zoragarria da: mina plazer bihurtuta, nazioaren ongiaren izenean. Garaipen ikaragarria da, kasta, klase, eskualde eta etnia guztietako boto-emaeleek eman diotena»

«Kanpainak ez zuen ukitu garrantzizko konturik, ez klima aldaketarik, ez krisi ekonomikoa, ez hezkuntza eta ez osasuna»

dira. Eraso, ez intelektualen aurkakoa, adimenaren adierazpen guztien kontrakoa baizik, basatia izango da. Politikariak, konpainietako zuzendaritzetako kideak eta hedabideetako beren bazkideak milioiunak eta ikaragarri aberatsak diren bitartean, ikasleei, irakasleei, idazleei eta kazetari independentei nazioaren aurkako «elitistak» izatea leporatzen diete. «Elite» etiketa aplikatzen zaie zuritzaile ez diren pertsonen, beren adimena batez bestekoa baino handiagoa bada. Amit Shah BJP alderdiko presidentek eta Ram Madhav idazkari nagusiak inongo apaingarririk gabe egin zituzten mehatxuak. Shah-k, emaitzak ezagutzean garaipena ospatzeko erabili zuten oholtzatik; Madhavek, hurrengo egunean egunkari bateko zutabe batean: “The Leader is the Truth” (Buzargia da Egia) izenburuko idatzian esan zuen herrialdeko paisaia kultural eta intelektualetik baztertuak izan behar dutela elitistek. Zaharra, zuzena, ohiko faxista. Orain hasten den bigarren agintaldian, orain bost urte abian jarri zutena burutzen saiatuko dira: benetako hezkuntzarekin amaitzea, benetako ikerketarekin, pentsamenduarekin eta artearekin bukatzea. Unibertsitateen aurkako erasoak, adimenaren aurkakak, gai-zerrendan daude.

Batzuek bereiztu egiten dituzte zeure artea eta zeure aktibismoa. Ez zaizu gustatzen eta nahiago duzu «idazle» deitzea. Muga hori, mundu hobe bat lortzearen aldeko konpromiso serioa idazle baten misiotik ateratzeko joera, Indian beste tokitan baino gehiago sentitzen al da?

«RSS-k eta BJP-k hauteskundeotan egin dutena kasta sistema indartzea izan da: kastaren araberrako zatiketa kudeatu, kasta eta azpikasten arteko kontraesanak baliatu eta bata bestearen aurka jarri sekulako zehaztasunez»

«Diru horrek ahalbidetu die milaka informatikari, datu-analista eta sare sozialetako ekintzaile erostea. Whatsappeko milaka talderi oso ondo aukeratutako propaganda banatzen zieten, pertsona bakoitzari, sektore, eskualde, kasta eta klase bakoitzari egokitutako mezuak, barruti bakoitzeko mahai bakoitzari egokituta»

Ezetz esango nuke. Konplazentzia harroputza gehiago nabaritu izan dut Europan eta Amerikan: beraiek bezalakoa izatea baino gauza hoberik ez dago. Hori aldatzen ari da beldur handiak sortu direlako. Beste behin, galdera handiak daude mahai gainean. Mundu osoa dago nahastuta. Arteak eta literaturak aldaketa hori islatuko dute.

Hizkuntzari leku handia eman izan diozu azken bolada honetan zeure pentsamenduan: bere aniztasuna, bere aukerak, bere perbertsio politikoak. Zergatik? Hindutva doktrinari, «nazio bat, hizkuntza bat, erlijio bat» diotenari, emandako erantzuna delako ala soilik hizkuntza idazle baten lurralde naturala delako?

Herrialde honetako, konplexutasun honetako, eremu naturala da. Eta jakina, idazlea izanik, gozatu egiten dut. Hindu nazionalisten doktrinaren gauzarik barregarriena da erabiltzen dituzten hiru hitzak, “hindustan”, “hindi” eta “hindu”, persierazko hitzak direla. Serioago hitz eginda, 780 hizkuntza erabiltzen diren herrialdean, eta horietako 20 Indiako Konstituzioan onartutakoak direnean, zenbatekoa da doktrina horren indarkeria? Gero ingelesez egiten duen elitea daukazu: elkarri leporatzen diote, ingelesez, elite anglofonoa izatea. Eta gero ingelesez egiten ez duen elitea daukagu, kasta gorenekoa, seme-alabak ingelesezko eskolara bidaltzen dituztenak, baina aldi berean ez dute nahi beheko kastakoek hizkuntza hori menderatzea, aurrera ateratzeko aukerak emango dizkien tresna ikastea.

SUEDIA

Klima larrialdiaren eraginez, hegazkinak hartzea lotsagarri bihurtu da

INGURUMENA / joseangel.oria@gaur8.info

Hegazkina hartzeak krisi klimatikoa larriagotzen al du? Oporretan urrutira joan gabe geratu behar al dugu, planetaren egoera gehiago izorratu nahi ez bada? Orain arte pentsaezinak ziruditen galderak ipintzen ditu mahaiaren gainean klima larrialdiak, eta hizkuntza bera ere aldatzen ari da, kontzeptu berriak behar bezala adierazi ahal izateko.

Orrialde honetan, ezkerrean, Malena Ernman abeslaria. Esquinean, Greta Thunberg ekintzailea Vienan, maiatzaren 31n egindako mobilizazio erraldoian. Beste orrialdean, hegazkin batek atmosferan utzitako kea.

GAUR8



Suedia betidanik nabarmendu izan da ingurumena zaintzeko ahaleginetan. Ezagunak dira, esaterako, suediarren birziklatze tasa ikaragarriak: orain hamarkada batzuk eraiki eta lanean jarri ziren erraustegiek hondakinak inportatu beharra izaten dute gaur egun, porrot ekonomikoa saihesteko.

Ezaguna da Greta Thunberg hamasei urteko neska autistik giza mugimendu gazte eta potente bat inspiratzeko erakutsi duen kemena ere: bera bakarrik hasi zen ostiraletan eskola utzi eta Parlamentua-

ren aurrean protestaldiak egiten, agintariei klima krisiari aurre egiteko moduko neurriak hartzeko exijitzeko; gaur egun makina bat hiritan egiten dira Fridays For Future izeneko mobilizazioak.

Berotegi efektua eragiten duten gasak murrizteko Parisen 2015ean egin ziren negoziazioetatik kanpo geratu ziren hegazkinak eta itsasontzi erraldoiek erabiltzen dituzten erregaiak. Kezkagarria, ingurumena zaintzea benetan lortu nahi den helburua bada.

Udazken hartako negoziatzaileek kanpoan utzi zuten arloari gero eta gehiago erreparatzen diote, eta Suedian

hitz ezin egokiagoa asmatu dute egoera berri honetarako: «flygskam» suedieraz, «hegal-dia hartu behar izateak eragiten duen lotsa», euskaratzen saiatuz gero.

LOTSA ETA HEGALDIAK

Suediar askok Europako hegoaldeko eta Afrikako iparraldeko bazterretara joateko joera izaten dute, etxean duten eguraldiak bultzatuta. Uda bukatzen denean hasten da iparretik hegora doan exodoa, eta Suedian bertan eguzkia ia agertu ere egiten ez den neguko egun ilunenetan izaten da punturik gorena. Trena, itsasontzia... edozein gauza erabi-

liko dute suediar askok hegazkinik ez hartzeko, urrutira joan beharra izaten badute.

Gure planeta bakarra berritzen ari diren gasak isurtzen dituztelako «errudunen aulkian» eserita daude abioiak, eta adituek egindako kalkuluak betez gero, gauzak gehiago okertuko dira: munduan gaur egun 20.000 hegazkin inguru baditugu, hemendik 20 urtera kopuru hori bikoiztu eta gehiago egingo da: 50.000 hegazkin airean, erregai fosilak erretzen.

Egoera larri hori saihestea litzateke «flygskam» hitza asmatu dutenen helburua. Lotsa eta mespretxua eragiten

omen diete hegaldiek. Aireportuetan antzeman dute ondorioa: gero eta bidaiari gutxiago erregistratzen da, Suedia barruko hegaldietan batez ere. Apirilean, herrialde-rik irteten ez diren hegazkinak aurreko urteko apirilean baino %15 bidaiari gutxiago izan dituzte aurretik.

Gainera, inkesten arabera, lau suediarretik batek ingurumena aipatzen du hegaldiak ez hartzeko arrazoi moduan. Malena Ernman opera kantariak –Greta Thunbergen amak– hegazkinik ez duela gehiago hartuko jendaurrean adierazi izanak lagundu egiten dio fenomenoari.



Hegaldien aurkakoei beraiei ere arazoak eragiten dizkie erabakiak. Greta Thunbergekin ez du hegazkinik hartu 2015az geroztik. Maiatzean Europako makina bat hiri bisitatu zituen, autobusez ibili zen. Suitzako Davos hirira, bertan egin zen Foro Ekonomikoan esku hartzera, joan ahal izateko 60 ordu egin behar izan zi-

tuen trenean sartuta. Bere hitzak entzuten egon ziren gonbidatuetako batzuek hegazkin pribatuak erabili zituzten hitzordura joateko. Ez zuten ulertuko neska gaztearen hitzaldia. Ezta pentsatu ere!

Rickard Gustafson Scandinavian Airlines konpainiako zuzendari exekutiboak Danimarkako egunkari batekin

Munduan 20.000 hegazkin inguru baditugu, hemendik 20 urtera kopuru hori bikoiztu eta gehiago egingo da: 50.000 hegazkin airean, erregai fosilak erabiltzen

Joan den apirilean, Suediatik irteten ez diren hegazkin komertzialek aurreko urteko apirilean baino %15 bidaiari gutxiago izan zituzten

egindako elkarrizketan esan zuen «flygskam» mugimendua aire trafikoa kaltetzen ari delakoan dagoela.

Arazoa asko larriagotuko litzaike giza fenomeno hori munduko beste lekuetara ere zabalduko balitz.

Horixe izan zen Seul Hego Koreako hiriburuan egin berri den aire konpainien gailur bateko esku-hartzaileek mahairatu zuten kezketako bat. «Zalantzan jartzen ez badugu, sentimendu hori hazi egingo da, hazi eta zabaldu», adierazi zuen Alexandre de Juniac Nazioarteko Aire Garraio Erakundeko buruak.

KALIFORNIATIK NEW YORKERA

AEBetan herritarrek Europan baino gehiago erabiltzen dute hegazkina: mundu osoko bidaiarien %24,5 Europan daude; %27,7 Ipar Amerikan; %32,1 Asian eta Ozeano Bareko herrialdeetan (askoz ere populazio handiagoa izanda, hori bai); %6 Latinoamerikan eta %3 baino gutxiago Afrikan.

Hegazkina, autoa baino kaltegarriagoa al da? Galdera horixe egin zuten zientzialariek AEBetan. Autoak eta kamioiak herrialdeko isurketa guztien ia %20ren arduradunak dira gaur egun. Eta ibilgailu horiek gero eta garbiagoak izaten dira. Ingurumenean eragiten dituzten kalteak kontuan hartuta, egile batzuek diote autoa aukera hobea dela egun.

“The New York Times” egunkariak egin duen ikerketa baten arabera, Kaliforniatik New Yorkera hegazkinez joan eta etortzen den bidaiari batek bere autoak urte osoan egiten dituen isurketen %20 inguru egiten ditu. Hegazkinez bidaia hori behin egitea autoa 70 egunez erabiltzea bezain kutsakorra da.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Gustukoak eta jarraitzaileak

Zoriona, partekatzen ez bada, ez dela erreala diote. Hala ere, gaur egun, gero eta jende gehiagorekin partekatzen dugu eta jakinguraz, bizitza gutxiago dugula eta hezur eta mamizko harremanetatik urrunago gaudela ematen du. Agian, paradoxa dirudien esaldiaren gakoa «zoriona» hitzean datza; zeren, benetan, sare sozialetan partekatzen dugunari zoriona deitu dakioke? Ez al dauka geure burua besteen aurrean goraiatzeko beharrarekin zeri-kusi handiagoa? Gaur egun, inoiz baino ageriago geratzen da gainerakoen arreta lortzeko dugun beharra; jarraitzaile eta gustukoak bilduma egiten dugu, Dragoi Bolaren kromo errepikatuak trukatu bagenitu bezala, baina falta zaizkigunak lortzeko azpikerian ibilita. Honek, hein on batean, ondorez emozional handia sortzen du. Sare sozialek (batez ere batzuek), “gustuko” edo *like*-en diktadura ezarri dute, gainerakoak baino hobeak irudikatzearekin itsutzea eragiten digu, gainerakoekin konparatuz, beste batzuen bizitzak itxuraz erakargarriagoak izateak dohakabe sentiaraziz. Egoerak eskatzen duen mailan jokatzeko, aldiro, esperientzia sinestezinak bizitzera behartuta gaude, eta errealtatea ez zaio hurbiltzen.

Zygmunt Bauman soziologoa gaiari buruz aritu zen “Liquid Modernity” (modernitate likidoa) liburuan. Bertan, sare sozialen bitartez kudeatutako harremanen iragankortasun eta suntsikortasunari buruz idatzi zuen. Sare sozialetako kontaktuak erraz sortzen eta ezabatzen dira, haragi eta mamizkoak ez hainbeste. Horrela, absentziak eta presentziak ez digute guztiz eta sakon eragiten. Gure ape-

tara darabiltzagun komunitate txikiak eratzen ditugu, eta hor nor dagoen eta nor ez erabakitzen dugu. Eta noski, aurkezgarriena bakarrik erakusten dugu. Baina bizitza birtualean bakarrik egiten al dugu hori?

Gaiaren inguruko ikerketek diote “like” bat jasotzean, gure garunean, gustuko dugun norbaitekin musu ematean edota hitz goxoren bat jasotzean izaten diren mekanismo berdinak aktibatzen direla. Izan daiteke bizitza birtualean errealean baino sentsazio gozagarriagoak bizitzen ari izatea? Komunikazio berri honen atzean gauza on asko daude, hala ere, beste batzuk ez dira hainbeste. Sareetan, nolabait konturatu gabe, erakustoki publiko horren mendekoa bilakatzen gara. Gu identifikatzea eta era jakinean ezagutzea nahi dugu, eta lortzen ez badugu, frustratuak sentitzera hel gaitzek. Sare sozialetan komunikazioa ziztu bizian doa eta abiadura honetan asetzen dugu onartuak izateko beharra ere. Nola moldatzen gara bizitza erreale-

an partaideak garen taldeetan? Onartuak sentitzen al gara?

Ezin dugu ukatu, bada, ehun sozial eta emozionalean onarpenak duen garrantzia. Bizitzaren alor guztietan, besteen begietara ikusezin sentitzeak zaila eta mingarria izan behar du. Onarpenak balioa ematen digu, pertsona bezala duindu eta ikusgai bihurtzen gaitu. Besteari izatea, egoitea eta askatasunean bere burua eraikitze baimena ematea da. Garapen pertsonala bultzatuz, mugatu eta baliogabetu gabe. Onartze osasungarria praktikatzeko duena gai da besteari den horregatik balioa emateko, eta ez norberak desiratuko lukeenagatik. Pertsonok, guk geuk, geure buruari ematen diogu onarpena eta besteengandik jasotzen dugunarekin bateratu behar dugu. Gure bizimodua kanpoko errefortzu positiboetan bakarrik ardazteak mende-kotasuna eta ondoreza baitakartza. •

saioaaginako@gmail.com



Onarpenak balioa ematen digu, pertsona bezala duindu eta ikusgai bihurtzen gaitu.

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Urroz Meliton Manzanas baino aproposagoa baitzen

Espainiako Estatuan «Terrorismoaren Biktimen Eguna» ekainaren 27an dute jarria egutegian, bederatzi urtetik hona. Ekitaldi nagusia Diputatuen Kongresuan egin ohi dute. Ekainaren 27a zen Begoña Urroz haurtxoa Donostiako Amarako geltokian bonbaz hil zutenean, 1960. urtean. ETari leporatu nahi izan diote azken hamarkadotan hilketa hura, eta jakina, ETaren «lehen hilketa» izanik, zein egun hori baino aproposagoa biktimei oroitzapena egiteko? Meliton Manzanasen edo Carrero Blancoren kontrako ekintzen urteurrenak baino askoz ere aproposagoa, bistan da.

ETak eragindako biktima bat behar zuen, eta ez edozein biktima. Krudelkeriaren erakusle gorena behar zuen. Eta hara, hortxe horretarako osagai guztiak zituena gertaera: 20 hilabete-ko haurtxo bat zen hildakoa eta ETA egilea. Bere lehen hildakoa. Perfektua zen ekainaren 27a Biktimen Eguna izendatzeko. Osagai horietatik, ordea, haien zorigaitzerako, bat ez zen zuzena, ETak ez baitzuen zerikusirik izan gertaera haiekin. Azkenean, aste honetan bertan, Madrildik ere onartu dute DRIL (Directorio Revolucionario Ibérico de Liberación) izeneko taldea izan zela atentatuaren egilea. Xelebrea da egunotan Interneten ibiltzea. Espainiako hedabideetan hasi dira aipatzen Biktimen Egunak DRIL horren ekintzarekin duela zerikusia, baina, albigis-teen barruan lehenagoko loturetan klik eginez gero, berriro ETA agertzen da arduradun. Urteotako lohi guztia ez da berehala garbituko.

Xelebrea ere bada Biktimen Eguna DRIL delako talde baten ekintza baten urteurrenean egitea, baina, tira, manipulazioek azkenerako edozer erditu dezakete, baita bitxikeria ere.

Inolako frogara edo zantzurik gabe ETari leporatu zioten Urroren heriotza, erakunde terrorista hutsa izan dela frogatu beharra baitzegoen. Egin izan dituzte kon-

trako norabidean beste mota bateko manipulazioak, ETak ekintza jakin batzuetan izandako ardura gutxies-teraino. Adibidez, Carrero Blancoren heriotza beste esku batzuek mugitu zutela dioten teoria konspiratzailea aireratzen dute hedabideetan tarteka. Logika garbia da: ETak haurrak hil eta masakreak egin ditu. Azkar asko leporatu nahi izan zioten M11ko sarraskia. Zentzu horretan, ETak berak gogoeta egin zuen bere amaiera azaltzeko eskaini zuen azken elkarrizketan: «Intoxikazio horietan aritu diren polizia, kazetari eta arduradun politikoei galdetu beharko litzaieke ea ez ote den nahikoa ETak benetan egin duena erakundeari zilegitasuna kentzeko eta ea horrelako gezurra asmatu behar izan ote dituzten. Egindakoarekin ez al ginen nahikoa 'terroristak' izango, ala?».

Xelebrea ere bada Biktimen Eguna DRIL delako talde baten ekintza baten urteurrenean egitea, baina, tira, manipulazioek edozer erditu dezakete

Horixe da, bada, «errelatoaren bataila» famatua eta madarikatua; madarikatua, horretatik ez baita ezer onik aterako, ez egia behar bezala osatzeko, ez etorkizuna eraikitzeko, ezta konponbidea egituratzeko ere.

Zer helburu izan zuten bestela TVEko kazetariak Arnaldo Otegi eginiko elkarrizketan? Kasu honetan, gainera, manipulazio gogoari (Otegiren ondoan erakutsitako irudiak lekuko) ezjakintasuna ere gehitu behar zaio, saioaren aurkezleak oraindik Urroren heriotza ETari leporatu baitzion, oharkabea. Ez dago egian sakontzeko asmorik, egian sakonduz gero aterabide demokratiko bat behar duen gatazka politiko batekin egingo bailukete topo. Urroz ez zela lehen biktima izan eta lehen biktima hori ez zuela euskal erresistentziak eragin ere ikusiko zuten. •

HILEKOAREN KULTURA

Ate handi bat, min eta tabuetatik komunitatera eta iraultzara pasatzeko

Enara Iruretagoienaren Ziklikoki Bizitzen egitasmoa entsegu bat da, bere ikerketen eta prozesu pertsonalen berri emateko toki bat. Duela bi urte sortu zuen, eta Erika Irusta du amabitxi.

«Bederatzi urte inguru daramatza hilekoaren pedagogia egiten. Soy1soy4 komunitate birtuala eratu zuen, non 500 lagun gabiltzan mundu mailan ‘hilekoaren kultura’ deitu dioguna sortzen», azaldu digu Iruretagoienak bere hirian, Irunen elkartu garenean.

«Hau ez da nire lanetako bakarra eta ezin diot gustatuko litzaidakeen denbora guztia eskaini, baina oso kontent nago», aitortu du. “Hile-topaketak” egiten ditu herriz herri, artikuluak idazten ditu blogean eta baliabideak bildu. Bere webgunean jasotzen du guztia (viviendoenciclico.com-en, euskaraz eta gaztelaniaz).

«Oso kontent nago nirekin jartzen direlako harremanetan gaia lantzeko. Ez naiz izugarrizko zabalpena egiten ari, ez baita nire ideia; nahiago dut gustura egon direnek lagun eta elkarteei esan eta deitzea».

BEHAKETA

Hala doa garatzen, pasioz eta konplizitatez, Ziklikoki Bizitzen proiektua, beraz zenbat eta gehiago elikatu, orduan eta gehiago handitzen den altxor bat bezala.

Horixe baita gorputza ezagutzea, eta hilekoa konexio hori egiteko baliabide ezin hobe da. Behaketa eta idazketa proposatzen ditu Iruretagoienak horretarako. «Behaketan odola bera hartzen ahal duzu baliabide bezala nola zauden eta zure zikloa nola dagoen jakiteko. Kopa edo telazko kon-

 **JENDARTEA** / Maider Iantzi Goienetxe

Altxor bat da gorputza ezagutzea eta hilekoa konexio hori egiteko baliabide aparta da. Halaxe dio Enara Iruretagoienak Ziklikoki Bizitzen proiektuaren sortzaileak. Berarentzat ate handi bat izan zen hilekoaren kultura deskubritzea eta ingurukoei eta munduari zabaltzen dabil. Hasteko, behaketa eta idazketa proposatzen ditu.

Enara Iruretagoienak, bere hirian, Irunen. Ara!Gorputz elkartea sortua du bertan kideekin batera. Besteak beste, ginekologia tailerrak egiten dituzte. Ondoko orrialdean, Iruretagoienak bere hilekoarekin egindako marrazkietako bat. Andoni CANELLADA / FOKU - ZIKLIKOKI BIZITZEN

presak erabilia egiten ahal da hori. Odola hartu, ukitu eta usain dezakezu. Poliki-poliki hurbildu, hau ere prozesu bat delako. Ez da egun batetik bestera egiten, karga kulturala dugulako odolarekin».

Dioenez, odolak ematen dizkigun pistak hagitz baliagarriak dira medikuarengana edo ginekologoarengana joan behar dugunean. «Pixa, kaka, listua... dena aztertzen da, baina hilekoaren odola duela oso gutxi hasi da ikertzen. Odolaz gain, zikloaren fase ezberdinetan botatzen dugun fluxua azter dezakegu. Horren bidez fasea jakin dezakegu, edo infekzioaren bat dagoen».

IDAZKETAREN BALIOA

Idazketa egunero egitea gomendatzen du, tarte txiki bat hartzea baina egunero. «Zure gorputza nola dagoen idatz dezakezu, nola duzun burua eta zein emozio dituzun. Hasteko modu bat izaten ahal da hori. Gutxienez hiru ziklotan erregistro hori eginda, irakurketa bat egiten ahal duzu eta zure patroiak atera. Hala jakingo duzu nola eragiten dizuten faseek eta nola bizitzen duzun hormona dantza hori».

Argitu du erregistroa egitearen ideia ez dela kontrolatzea. Norberaren zikloak ezberdinak eta bakarrak dira, aldakorrak ere bai, baina badira joera orokor batzuk. Lau ziklo daude identifikatuak, nahiz eta gehiago egon daitezkeela ikusten ari diren. Ziklo batetik besterako tarteko guneak, adibidez, garrantzitsuak dira.

«Lehenbiziko fasea hilekoarekin gaudenekoa da. Neguarekin pareka daiteke. Lehenbiziko eguna odol gorria ateratzen denekoa da. Umekiak odol hori eta dituen osagai guztiak kanporatzeko lana



egiten du gorputzak», azaldu du Iruretagoienak.

Bigarren fasea, udaberria, obulazioaren aitzinekoa da, non estrogenoen gorakada handia gertatzen den. Ohikoa da energia gehiago sentitzea, birjaiotza bat. Gero, obulazioaren fasea dator. «Nahiz eta ikusgarria odola izan, obulazioa da gakoa; odola obulazioaren ondorio da», azpimarratu du irundarrak.

IKERKETA GUTXI ORAINDIK

Bizi garen jendartean estrogenoak edonon daudela nabarmendu du: jaten dugunean, pestizidetan, estresean... «Hiperestrogenizazio horrek ez du obulatzen laguntzen. Kontua ez da obulatzea soilik, baizik eta kalitatez egitea. Obulatzen ez badugu, ez da estrogenoen eta progesteronaren arteko dantza gertatzen eta horrek egunean bertan ekartzen ahal ditu kalteak, eta epe luzera ere bai. Hezurrekin lotutako kalteak eragiten ari dela ikusten ari dira».

Idea hauek kontuz hartu behar direla dio, ikerketa gutxi dagoelako hilekoaren inguruan. «Hori da dugun arazotako bat. Ikerketak eskatu behar ditugu», aldarrikatu du.

«Obulazioan, udan, politikak sentitzen ahal gara. Feromonak ditugu gorputzean. Gainera, ama izateko gaitasuna dugu. Hortaz, sistemari gehien gustatzen zaion fasea da».

Udazkenean, hilekoaren aurreko fasean, progesteronaren gorakada handia gertatzen da. «Oso sistema azkarrean gaude eta zaila da progesterona horrek behar duen efektua egitea. Baina uzten badiogu, lasaituko gaitu. Fase honetan barrura begira jarriko gara».

Horiexek dira faseak eta dituzten kultur talkak. Udazkena



eta negua ez lirateke ongi ikusiak egonen sisteman; udaberria eta uda, bai.

Eta hau guztia jakiteak nola iraul dezake mundua? «Niretzat eta kideentzat aldaketa sakon bat izan da. Zure patroiak jakinda adi egoten ahal zara gauza batzuk bere momentuan jartzeko agendan. Bankura joan behar baduzu hipoteka bat negoziatzera, joan zaitez obulazio aurreko fasean, edo familia bazkari bat baduzu hileko aurreko fasean, agian ez duzu joan nahiko. Hori kontuan eduki dezakegu egunero-kotasunean, ekintzarako zein babeserako», proposatu du.

EZ DA KASUALITATEA

Indarkeriaz inguratuta gaude, eta babesa topatzea beharrezkoa dela azpimarratu du irundarrak. «Bada biolentzia handiagorik gure gorputzez mintzatu ezin izatea baino?», planteatzen du Elise Thiebautek «Esta es mi sangre» libu-


LEHENBIZIKO HILEKOA AURRERATU EGIN DA

Nerabeen hormona dantza gero eta lehenago hasten da: 8 edo 9 urterekin, eta ez 11rekin. Hala jaso zuen endokrinologia arloko «Pediatrics» aldizkari entzutetsuak jada 1997an, eta zalaparta sortu zen jendartean. Orain, hedabide berean, datu berriak kaleratu dituzte, are esanguratsuagoak: AEBetako neska zurien %10en bularrak 7 urterekin hasi dira garatzen. Komunitate afrikarreko nesken artean are handiagoa da kopurua (%23), baita hispaniar jatorrikoen artean ere (%15). Ikerketa batzuen arabera, 150 urtean bost urte aitzinatu da lehenbiziko hilekoa edo menarkia.

Kopenhageko Ospitale Unibertsitarioko ikertzaile talde baten azterketa batek zera ondorioztatu du: azken 15 urteetan urtebete aurreratu da menarkia. Zergatik aurrerapen hori? Zientzialariek ez dakite zehazki, baina teoria kezagarriak dituzte. Lourdes Ibañez Bartzelonako Sant Joan de Deu Ospitaleko endokrinologoak dioen bezala, genetika ezin izan da aldatu hain denbora gutxian, baina bai epigenetika; alegia, geneak berak dira, baina

ingurunean gertatzen diren baldintza zehatz batzuek desberdin portatzea eragiten dute. Kimikoak izan daitezke eragile horietako batzuk, besteak beste zenbait garbiketa produktutako estrogenoak eta disruptore endokrinoak, plastiko, pestizida eta elikagai industriako bertze osagai batzuetan ager daitezkeenak.

Adituek nabarmentzen dutenez, kontua ez da soilik nerabezaroaren adina aurreratzen ari dela; honen amaiera atzeratzen ari da: 10 edo 12 urte luza daiteke garuna bereziki zaurgarri egoten den bizitzako etapa hau. Bertze kezka iturri bat jolasteko sasoia murriztu izana da; 14 urtetik 11ra, hain zuzen. Umezaroa murriztu da, eta sozializatzeoko testuingurua aldatu. Elikadura, inguru soziala, irensten ditugun agente kimikoak edo organismora iristen zaizkigunak, horrek guztiak eragin du umeek garaia baino lehen ematea helduarorako pausoa, ez buruz ez gorputzez horretarako prest egon gabe. Adituen iritziz, ez da kondena bat, baina bai adi egoteko kontua.



ruan. Ezjakintasun handia dugu gure odolaz, gorputzaz, eta hori ez da kasualitatea.

Iruretagoienak egiten dituen “hile-topaketetan” sarri ateratzen da gaia: «Zergatik ez ziguten hau eskolan erakutsi?», harritzen da jendea. «Interesak daude horren atzean. Zenbat eta konektatuagoak egon gure gorputzarekin, orduan eta talka handiagoa egingo dugu erritmo izugarri honekin. Gehiago jarriko dugu zalantzan sistema bera».

«HILE-TOPAKETAK»

Herriz herri egiten dituen “hile-topaketa” guztiak sekulako opariak dira Iruretagoienarentzat. «Gogo handia dago hitz egiteko, eta norbaitek babestoki hori sortzea nahikoa da. Denok edukitzen ahal dugu ondoan lagun bat egun batean honetaz mintzatzeko. Atetxo bat irekitzen duzu, zerbait intimoa konpartitzen duzu eta harresi guztia erortzen da».

Beharrezko ikusten du bai topaketak antolatzea bai taldeetan espazioa uztea gorputzez solastatzeko; besteak beste, talde feministetan. «Erresistentzia modu bat da: goazen babestera, gutaz mintzatzera eta hemendik ere sortzera».

Garrantzitsua deritzo historia propioak berreskuratzeari eta aitortzeari, «imajinario batzuk sortzen ari direlako agian ez direnak oso errealak. Adibidez, liburu bat ematen ahal diozu nerabe bati, oso polita, lehenbiziko hilekoaren edo menarkiaren inguruan. Baina

«Bankura joan behar baduzu hipoteka bat negoziatzera, joan zaitez obulazio aurreko fasean, edo familia bazkari bat baduzu hileko aurreko fasean, agian ez duzu joan nahiko»

«Zergatik ez ziguten hau eskolan erakutsi? Interesak daude. Zenbat eta konektatuagoak egon gure gorputzarekin, orduan eta talka handiagoa egingo dugu sistemarekin»

Marraztea bide zoragarria da Iruretagoienarentzat odola beste toki batean jartzeko. Ukitzeko, usaintzeko, kontaktu zuzena izateko. Webgunean galeria bat zabaldu du, jendea probatzera gonbidatzeko. ZIKLIKOKI BIZITZEN

kontaiozu zure historia eta animatu ingurukoen historia jakitera. Ez beste imajinario bat sortu, non hor sartu behar duzun eta festa bat egiten den menarkian. Agian neskak ez du menarkia ospatu nahi».

Hamaika mito egon da eta bada oraindik hilekoaren inguruan eta berriz sortzen ahal ditugu mitoak.

Odola ikusgarri bilakatzeko modu bat arterako erabiltzea da. Enara Iruretagoienak marrazkiak egiten ditu eta bide zoragarria da berarentzat odola beste toki batean jartzeko. Ukitzeko, usaintzeko, kontaktu zuzena izateko. Webgunean galeria bat zabaldu du, jendea probatzera gonbidatzeko.

«Zikintasunaren ideia sartua dugu kulturalki. Mezu hori bidaltzen digute: ‘salvaslipa’ salbatzeko, higiene produktuak... Baina ez da zikina, beraz, ez da ezer garbitu behar». Azken urteetan koparen iraultza gerta-

t u
d a .
Isurketa
librearen aukera ere zabaltzen ari da. Badaude, beraz, baliabideak ideiak birdefinitzeko norbere barruan, eta konpartitzeko ere bai.

EKONOMIA FEMINISTA

Barrura begiratzeko abentura honek ekonomia feministara eramane du Enara Iruretagoienara. Honek fokua jartzen du ikusgarriak izan ez diren lanetan, ikusgarri bilakatzeko: zaintza, garbiketa... «Izozmendi bat da. Goiko partean dago sistemak goraipatzen duena: kalea, produktiboa, ikusgarria... Eta behean, etxea, erreproduktiboa... Goikoa ez zen mantenduko behekorik gabe



Ziklikoki Bizitzen proiektuaren sortzailea herriz herri ibiltzen da hilekoaren inguruko topaketak egiten. Jendea solastatzeko irrikatzen egoten da.
Andoni CANELLADA | FOKU

baina
hau ez da
ikusgarria».

Entsegu moduko proiektua da hau ere. Aurre-obulazioa eta obulazioa sistemen begiradatik izozmendia-aren goialdean egongo lirake; aldiz, hileko aurreko fasea eta hilekoarena, behean.

«Emakumezkook badugu lan bat egiteko dirua merezia sentitzeko, diru horrek toki bat izateko gure bizitzan». Ildo horretatik ere badabil ikertzen. Orain dela gutxi bi formazio egin dituzte Olatukoo-
pen barruan (Olatukoo-
koordinatzaile gisa hasi berri da lanean): enpresen kudeake-
ta landu dute ekonomia femi-
nistaren ikuspuntutik. «Hain-
bat proiektu eraldatzailetan

gorputzak egotea izan da ideia. Izan ere, mundua alda-
tzen saiatzen ari gara, baina
non daude gure gorputzak?».

DESIRA ETA BEHARREN MAPA

Iruretagoienak beste gonbida-
pen bat luzatu digu: «Zure de-
sira eta beharrak idatzi eta ko-
loreekin markatu zerekin
dauden lotuta: kapitalismoa-
rekin, komunitatearekin, era-

kunde publikoekin ala etxea-
rekin. Dirua oso garrantzitsua
da; haren mende gaude eta
tresna handi bat dugu mundu-
ko iraultza bat egiteko». Banku
etikoa eta energia berriztaga-
rriak aipatu ditu aukera gisa.
«Poliki-poliki norbere ardurak
hartzea da kontua, gorputzare-
na eta inguruarena».

Erran dugu zenbat eta gehia-
go elikatu beretik, handitzen

doala altxor hau eta Irureta-
goienak badu bertze proiektu
bat: Ara!Gorputz elkarte, Iru-
nen bere konplizeekin sortua.
Besteak beste, ginekologia tai-
lerrak egiten dituzte herriz he-
rri. «Hilekoak ez luke minik
eman behar, baina min horiek
normalizatzen joan dira, in-
darkeriak bezala». Argia eta
haizea ematea da tailerron
helburua.

ETIOPIA UTOPIA, NESKEK AUKERA BERAK IZATEKO LANEAN

Etiopian, eta zehazki Tigray eskualdean, ikasle ugari ez da eskolara joaten hilekoarekin dagoenean. Printzipio erlijiosoak, tabu sozialak eta azpiegiturarik eza daude horren atzean. Neskatilen %51 egun bat eta lau egun artean gelditzen dira klasera joan gabe. Lotsa, kultura edo material falta dira arrazoiak.

Egoera horren aurrean, neskei ikasteko aukera berak ematearen alde, proiektu bat eraman du aitzinera Etiopia Utopia fundazioak zazpi hilabetez, joan den abenduan hasi eta

ekainera arte. REST bertako GKEarekin elkarlanean egin dute lana.

Lehen Hezkuntzako hamar eskolatan zentratu dira. Hiru nekazari eskualdetakoak dira, Tigraykoak. Eskola horietako bakoitzean nesken klub bat antolatu dute toki eroso eta pribatu bat izan dezaten hilekoarekin daudenean. 10 urte baino gehiagoko ikasleentzako kluba da. Gutxienez irakasle batek laguntzen ditu.

Klubak partaideentzako bilgune bat du, eta atsedenerako eta lasai egoteko txoko bat ere bai, beharrezko material

guztiarekin: konpresa, tanpoi eta kopak, toallak...

Etiopia Utopiakoek azaldu dutenez, neurri horiek berak hartu dituzte inguruko bertze ikastetxe batzuetan ere eta emaitza ona eman dute. Horregatik, Gobernu-
ko politikak bide horretatik doaz. Zoritzarrez, eskola guztiek ez dute nahiko bitarteko emakumeen ahaldunderako hain beharrezkoak diren programa hauek martxan jartzeko. Garrantzitsuak dira isiltasuna eta erabat naturala den zikloaren estigma hausteko.




Jagoba MANTEROLA | FOKU

 IKUSMIRA

EGURALDIA HIZPIDE

Beroa, edo hotza, euria eta eguzkia egunero-eguneroko hizpide dira. Eguraldia. Kalean, lanean, tabernan eta -batez ere- igogailuan. Ia agur moduan, gehienbat zer esan ez dakigunean. Ez dakigunean baina, isiltasunaren beldur, zerbait esan beharra dagoela uste dugunean. Gehienen gustuko eguraldia egiten duenean, «ederra, bai, ea eusten dion....», edo «bai, baina euria omen dakar», edo hotza, edo haizea, eta horiek beren alerta eta guzti iritsi ohi dira. Eguraldi ezatsegina egiten duenean, antzera, baina beste norabidean, beti ere isilunerik ziztrinenaren beldur: «kaxkarra, bai, ea epeltzen duen...». Eta asteen epeldu du, ia gorputza urteraino epeldu ere. Egunotako ezohiko berotzarrak -baldin benetan horren ezohikoa bada- justifikatzen bide du ohiko hizpide hori, eta solas guztietako gai nagusia da, goizean behinik behin, arratsalderako hitz egiteko go-goa ere joaten baita. Ez da erremedio txarra irudiko lagunek, isiltasunari muzin eginda baina hitzetan urri, Argako uretan topatu dutena. Xabier Izaga Gonzalez

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



> Su, dantza eta aldarrikapen gaua



NAIZ+

Hiri giroan edo mendi puntan, hondartzan edo kalean, urteko txar guztiak uxatzeko edota ikasturteko apunteak erretzeko, ehunka su piztu ziren iragan igandean Euskal Herriaren luze-zabalean. San Joan



egunaren atarian, suaren berotan udako solstizioa ospatu zuten han eta hemen. Sare sozialetara ere heldu dira suaren txinpartak.

Dantzek pisu handia dute San Joan suaren ospakizune-

an. Andoainen, adibidez, Urriko dantzariak Bizkaiko zenbait dantzaren emanaldia egin zuten suaren inguruan.

Kukai Dantza konpainiako Jon Mayak ere bere herri Errenteriako San Joan suaren ospakizuneko irudia partekatu du sarean. Berezia izan zen igande gauekoa.

Aizpea Otaegi Errenteriako alkateak bere Facebookeko profilean adierazi zuen bezala, Errenteriak emakumezko alkate bat duen lehen aldia da, eta gainera, Ereintza Dantza Taldeko Maddalen Arenaza izan zen San Joan suan ohituraz dantzatzen den sokadantzako sokaburua.

Mayak bat egin zuen berdintasunaren bidean bere herrian azken urteetan izandako aurrerapausoekin: «Ez gizonik, ez emakumerik... soilik denak dantzariak! #berdintasuna #ekintzetatik. Ez da albistea, errealitatea da».

Aldarrikapenak ere izan ohi du lekua San Joan suan. Andoainen eta Irunen urrun dituzten euskal presoak izaten dituzte gogoan sua pizterakoan.



> Kontxa hondartza, bi egunez itxita Woody Allenentzat

Uda betean, Kontxa hondartza itxi egingo dute bi egunez, Woody Allenek bere 51. zinema lana filmatzeko. Hala baieztatu du Eneko Goia alkateak aste honetan irratian. Hondartza ixteak herritarrei trabak eragingo dizkien jakitun, zuzendari newyorktarraren filmak izango duen oihartzunak me-rezi duela azpimarratu zuen.



Filmaketa uztailaren 10ean hasi eta abuztuaren 23ra arte amaituko da, baina ez da jakin zein bi egunetan egingo duten Kontxako filmaketa. Egunotan casting bat egiten ari dira.

Hondartza ixteko asmoak esanbideak eman ditu sare sozialetan. Alkateak ere erabili ditu sareak azalpenak ematen saiatzeko.



> Alardeko bazterkeria, eztabaidara jaiaren bezperan

Bihar Irunek bere festa nagusia biziko du, berriro ere bi alarde-tan zatituta. Bi festa paralelo, kuadrillak eta familiak zatituta.

1996an sartu ziren lehen aldiz 57 emakume alardera soldadu, eta lehen urteetako amorrua eta basakeria txikitu egin diren arren, alarde parekide bakarra lortzeko helburua urruti dago oraindik.

Aldarrikapena hirira itzuli da. Su Txikian kolektiboak pan-



karta handi bat jarri zuen igande-
dean. Betiko Bigotudak kolekti-
boak berriro azpimarratu du
sare sozialetan emakumeak
alardean parte hartzeko borro-
ka ez dela bukatu. Ironiaz eta
umorez, emakumezko soldadu
haiek omendu dituzte. Lehiake-
ta bitxi bat abiatu dute, emaku-
meek alardean parte hartzea
debekatzeko aitzakia errepika-
tuenak zein diren eta antzeko
galderak eginez.

> Garagardoa erosiz boikotatutako jaialdi neonazia

Ostritz Alemaniako ekialdeko hiri txiki bat da. Hango bizila-
gunek hiriko supermerkatue-
tan eskuragarri zegoen garagar-
do guztia erosi zuten, jaialdi
neonazi bate kontra protesta
egiteko.

Urtero bostehun lagun inguru
biltzen dira hiri horretara,
Schild und Schwert –Ezaugarri
eta Ezpata– Jaialdian Adolf Hi-
tlerren jaiotza ospatzeko. Ho-
rren aurrean, 300 bizilagun
inguruk manifestazioa egin
zuten Ostrizko kaleetan barre-



na, beren arbuioa erakusteko.
Jaialdia zapuzteko saio origi-
nal hori sareetara eta hedabi-
de ugaritara iritsi da.

Poliziak debekatua zuen
jaialdiaren esparruan alkohola
saltzea; hortaz, garagardo itu-
rri bakarra udalerriko super-
merkatuak zirela ikusita, bizi-
lagunek apalategi guztiak
hustu zituzten. Gainera, aurre-
ko egunean Poliziak 4.200 li-
tro garagardo konfiskatu zi-
tuen, eta larunbatean, jaialdira
joan zirenei, beste 200 litro.



> «Altsasukoak kantxara»

Altsasuko CBASK saskibaloia
taldeak antolatuta, Altsasuko-
ak Aske 3x3 Streetball Txapel-
keta izan zen larunbatean Sa-
kanako herri horretan. Parte
hartu zuten hamar taldeek li-
gaxka bat jokatu zuten eta
eguerdian geldialdia egin zu-
ten, parrilada bat bazkaltzeko.
Arratsaldean, txapelketak ja-
rraitu zuen. Giroa berotzeko



DJ Txenek musika jarri zuen
eta ikusle dezente hurbildu zi-
ren Intxostiapuntara.

Sakanako Likoretas eta Agu-
rain taldeek jokatu zuten fina-
la, baina hori baino lehen kon-
tzentrazioa egin zuten hara
bildutakoek, «Altsasukoak
kantxara, gurekin nahi zaituz-
tegu» leloa zuen pankartaren
atzean.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Laudorio merkeak

Maiana baloiari osti-koka ari da. Lantzean behin, lortuko du ate moduan ipinita dauzkan bi trasteen artean baloia pasatzea. Atezain du izeba. Ondoren, izebak jaurtitako baloia gelditzen ahaleginduko da. Hala ari dira jolasean: bata baloia bota eta bestea gelditzen saiatu, txandaka.

Izebak dagoeneko bota dizkio bere hiztegian dituen laudorio guztiak: «Ederki!», «Hara, bikaina!», «Trebea zara gero!», «Txapeldun!», jaurtiketa eta jaurtiketa artean, isildu gabe ari da. Gero eta pasio gutxiago darie haren hitzei, baina ongi gozatzen ari zaizkio belarriak Maianari.

Halako batean, Maiana baloiaren aurrean ipini, eta ostiko-jo aurretik izebari esan dio: «Benga, izeba, orain zuk esan txapeldun eta hori dena!». Izebari kontrako eztarrira joan zaio esatera zihoan hurrengo laudorioa. Bat-batean, kontziente egin da bere jardunak duen eraginaz: jolasaz gozatzeaz baino, baloia bi zutabe antzekoen artean sartzeko ahaleginean baino, izebak zer esango dago haurra, esne mamitan zer entzungo.

Zenbatetan ez ote gabilta horrela, ahoa «oso ongi», «ze polita», «zu bai zu», «onena zara» eta gisakoez beteta. Eta horrek guztiak zenbat laguntzen ote dio haurrari HOBE-TZEN... izan ere, gure errefortzu hitzek eta haurrarekiko begiradak horixe behar lukete helburu: haurrari bere gaitasunen garapenean hobetzen laguntzea.

Baina nekez lagunduko diogu horretan, hobetzen, haurraren egiteetan arreta jarri beharrean, lore jaurtiketan eta laudoriozko hitzetan galtzen bagara. Zenbat gehiago ez ote duen balio haurrari azaltzea zer gustatu zaigun edo berari zer gustatu ote zaion galdetzea; aipagarri aurkitu duzuna azaltzea edota bere lanarekin konforme gelditu den galdetzea... Egin duena ikusten laguntzen ariko gara, eta hori da bidea neska-mutilari hobetzen laguntzeko.

Izan ere, bestela, errepikapenaren ondorioz hitz hutsalak bihurtzeko arriskua duten gure laudorio merkeen



Haurrak txaloetarako bakarrik prestatzen al ditugu? GAUR8

mendeko egiteko arriskuan egon daiteke haurra. Jakin badakigulako haurrak guri gustu emateko beharra duela – bere berezko ezaugarria da –, eta horrek bera hauskor bilakatzen du eta gu egoeraren jabe.

Lehenengo batean, sarean dabilen bideo batean aurkitu nuen hausnarketa: «Haurrak txaloetarako, sarietarako eta arrakastarako prestatzen ditugu. Inork ez zaitu prestatzen tristurarako, akatsetarako, isiluneetarako, gelditzeko eta norberaren baitan gordetzeko uneetarako, maiteminerako».

Antza, dena korri, jauzi eta hegan egiteko bideratua da-goela dirudi. Bizitzak gure lekuan jartzen gaitu beti, ordea, eta orduan sentitzen hasten gara baita ere gure-gureak ditugun arren hain arrotzak zaizkigun tristura, frustrazioa, amorrua, eta abar. Eta horiek guztiak gureak bezala onartu eta kudeatzean datza, neurri handian, bizitzan aurrera egitea.

Zenbaitetan badirudi haurrak bere emozioak kudea ditzan egin beharrekoa miresgarria dela esan eta sekula ezetz ez esatea dela. Zenbat aberatsagoa ote den, aldiz, haurrari erakustea gal daitekeela, nahas daitekeela eta eror daitekeela, eta ez dela ezer gertatzen! Edo ez al dugu ikasten behin eta berriro erori eta jaikita? Bizitza ez da sekula izan beti erraza eta polita inorentzako... eta ez da izango! •

{ koaderno }

Amaia Nausia Pimoulier

Sua

Pasa den astean San Joan gaueko suetan ibili nintzen familia eta lagunekin. Suak pizten ari ziren sorora iristerakoan, nire haur txikienak, bi urte dituenak, «uuuuuuu» bat bota zuen. Beldurtuta eta miretsita zegoen aldi berean. Ez zuen gehiegi gerturatu nahi, baina ezta handik alde egin nahi ere.

Suak badu ia ulertezina den xarma hori, ezta? Sortzailea eta suntsitzailea izan daiteke neurri berdinean. Jakina da gizakion eboluzioan funtsezkoa izan dela, beroa eta babesa eman zigun hasieran, baita ere elikagaiak kozinatzeak aukera ere. Baina gure ibilbidearen beste momentu batean ulertu genuen hura menderatuz hondamendiaren boterea izan genezakeela gure eskuetan.

Atabikoa da sua. Milaka urtetan haren inguruan eseri izan gara gizon eta emakumeok, gure balioak eta sinesmenak istorioen bidez eraikitzeak. Tribuaren indarra eta batasuna suaren inguruan eraikitzen zela badakigu. Horregatik, agian, sua ikusten dugunean, gure begiek dirdiraz hari begira egon behar dute, ia beste leku batera begiratu ezinda. Txikitan nire gurasoen kuadrillak Izaban borda alokatzen zuen udaberri partean, telebistarik gabe, mugikorren garaiauen aurretik. Helduek afalondon hitz egiten zuten bitartean, orduak ematen genituen sutondoan anaiak eta biok suari begira bere dantzarekin liluraturik. Horregatik, nire alaba txikiaren beldurra eta harridura berehala ulertu nituen. Bien bitartean, gure bost urteko alaba eta bere lagunak makilatxoan bila aritu ziren piztutako sua elikatzeak. Bai, suak gure arbasoekin zuzenki lotzen gaitu eta berarekin dantzan jartzen gaitu.

Baina, sortzailea den bezala, suntsitzailea ere izan daitekeela ulertzen dugu. Eta agian horrek erakargarriagoa egiten du. Herriak menderatuak izan

dira bere indarpean eta garai ezberdinetan botere-tsuek arauak apurtzen zituztenak zigortzeko ere erabili izan dute. Esate baterako, urteko gaurik motzena ospatzeko suaren inguruan dantzan egiten zuten emakume asko inkisidoreek piztutako sugarretan erailak izan ziren. Ziurrenik ere hau izan daiteke eredurik paradigmaticoa. Suaren inguruan Deabruarekin paktua egiteagatik susmagarriak ziren emakume horiek guztiak suaren bidez zigortuak izan ziren ondoren. Eta garai horretan ere, orain dela lau mende, gizarte guztia San Joan gauean bezala, suaren handitasuna ikustera gerturatzen zen ikuskizun izugarri horretatik begiak ezin aldentuz.

Bai, suak badu ulertezina den xarma berezi bat. Su handi, ertain zein txiki baten aurrean guztiok antzeko sentimenduak bizitzen ditugu; beldurra, jakin-mina, indarra, handitasuna, eta abarrekoak.

Atabikoa da sua. Milaka urtetan haren inguruan eseri izan gara gizon eta emakumeok, gure balioak eta sinesmenak istorioen bidez eraikitzeak. Tribuaren indarra eta batasuna suaren inguruan eraikitzen zela badakigu.

Bere indar, misterio eta handitasunaren bidez gure barneko instintu primitiboenak pizten dizkigulako izanen da agian. Edo, esan bezala, gure burmuin primitiboa pizten duelako eta kobazuloen garaiauen zuzenean konektatzen gaituelako.

Arrazoia ez dakit. Baina agian horregatik, teknologia berrien garaian, smartphone, ordenagailu, Internet eta marrazki bizidunen garaian, nire alaba txikienak sua lehen aldiz gertutik ikusi zuenean inoiz entzun izan diodan «uuuuuuuu» sakonena bota zuen. •

Euskaltzain oso izendatu zuten iazko otsailaren 23an Bilbon sortutako trebiñar eta, beraz, arabar hau. Joan den hilean egin zuen sarrera-hitzaldia, Trebiñu eta euskara gai zituela. Horretaz, bera buru duen Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeaz eta duela bi aste izan zen onomastika jardunaldiaz mintzatu zaiagu, abegikor eta grinatsu, ume-tako oroitzapenak aurreko astekoak bezain argiro aletuz.


Euskal toponimia eta oro har euskararekiko interesa oso gazterik piztu zitzaizun. Zer sentitu zenuen euskaltzain oso izendatu zintuztenean?
Ezin kabituzko poza. Baina ez hainbeste alde pertsonalagatik-edo, baizik eta batez ere nolabait Arabako hegoaldeari egingdako euskalduntasun aitortza moduan. Araba osoan ez, baina gehienez euskara aspaldi galduta, euskal lurraldeen artean azken alaba, azken semea, edo txiroa zen sentipen hori bizi izan da. Zorionez, gauzak ikara-

garri aldatu dira, hobera. Kontua da oraindik ere Araba barruan inguru konkretu batzuk euskaratik baztertuxe bezala sumatzen direla. Trebiñu, zer esango dut? Gaur egunean hainbesteri, Trebiñun bertan ere, euskararekin berezkoa duen lotura, lotura historiko hori aipatuta, harritu egiten zaizkigu, badagoelako halako mekanismo humano bat Burgosekiko menpekotasun administratibo horrekin lotu eta horren abstrakzio moduko bat eginda, dagoen lekuan dagoela

«Sarrera-hitzaldia ekitaldi kulturala zen, baina baita familiarra, lagun artekoa, eta bazuen aldarrikapen ukitu nabari bat, azken batean Trebiñuk hizkuntza aldetik baduelako errealitate ukatu bat»

ere, nolabait Gaztelako zatia dela pentsarazten diena. Eta Gaztelako izate hori, huts-hutsean –zoritxarrez ez da gutxi–, arlo administratibora mugatzen da. Gainerako guztian, arlo soziokulturalean eta hizkuntza-ren aldetik batera doa eta batera joan da beti Arabarekin.

Zure izendapen horrek badu, beraz, bere karga sinbolikoa, baina zure merezimendua ere aintzat hartuko zuten.
Baina, benetan, ez da apaltasun faltsua, ez da gehien gogobete-



«Arabako hegoalde horretan euskara bertako toponimian bizi- bizirik dagoela ikusi nuenean, aurkikunde kate pozgarri eta zirrargarri bat izan zen niretzat»

tzen nauena. Ez dut ukatuko, jakina, baina niretzat... gogoan dut Lagrango amamak umetan, gu orduan Bilbon bizi ginela, esaten zidala «*yo también soy vasca*». Eta nik baietz pentsatzen nuen, baina urrun ikusten nuen. Eta ikusi nuenean Arabako hegoalde horretan euskara bizi-bizirik dagoela bertako toponimian, aurkikunde kate pozgarri eta zirrargarri bat izan zen niretzat. Eta hortik aurrera, haurtzaroa eta gaztaroa alde batera utzita, Arabako euskararen historia ikertzen aurrera joan naizenean, aurkikunde bakoitza aldi berean neurri bereko zirrargarritasuna izan da, hasierako sentipen hori izan dut, normaltasun batean txertatu dudan arte.

**Bizitza erdia Trebiñun eman-
da, sarrera-hitzaldia bertako
Done Petri elizan egin ze-
nuen, mukuru beteta zegoela.**
Horretan benetan harrotasun
puntu bat sentitu nuen, zen-
tzurik onenean ulertuta. Ekital-
di kulturala zen goitik behera,
baina baita familiarra, lagun ar-
tekoa eta, ez dut ukatuko, ba-
zuen aldarrikapen ukitu nabari
bat; azken batean, Trebiñuk
hizkuntza aldetik baduelako
errealitate ukatu bat, Gaztela
Leondik ukatua. Horien arabe-
ra, han euskara ez da existitzen,
ez da existitu eta ez da inondik
inora onartua.

**Eta ukazio horren aurrean,
ukaezina dena erakusteko
egin zenuen zure aldarrika-
pena.**
Hori da. Hor daude datuak, age-
rian, ukatu ezinezko errealita-
tea izanik, eta alde nolabait
zientifikotik ari naiz, ikuspun-
tu objektibo batetik, ez naiz ari
ideiez, sentipenez... Eta badaki-
gu gainera noiz arte iraun duen

bizirik euskarak Trebiñun, eta
zer euskara mota egiten zen.

Behin baino gehiagotan esa-
na dut, baina bakarrik denbora
behar dut horretarako. Ez dakit
noiz iritsiko den, baina egunen
batean... Toponimiaren bidez,
dokumentuetan ere iritsi zaiz-
kigun datuen bidez eta desku-
brituko ditugunen bidez, Trebi-
ñuko euskararen hiztegi
historiko moduko bat osatu
daiteke, ikuspuntu kultural ho-
rrekin eta toponimiarekin oso
lotua. Iruditzen zait hori litza-
tekeela Trebiñuko euskararen
errealitate historiko hori age-
riago uzteko modu bat. Proiek-
tuak dira.

**Gogoko gaia, gogoko lekuan:
Trebiñu, Euskararen Herria.**
Euskararen Herria. Intenzio
guztiarekin aukeratutako izen-
burua da. Kontuan hartu... ni-
re ikerketa esparru honen ba-
rruan toponimiaren aldetik
lerratu naiz gehienbat, toponi-
miaren bidez dudalako Araba-
ko euskararen historia azter-
tzeko modurik eraginkorrena.
Zorionez, tarteka testuren bat
agertzen zaigu, Lazarragarena
eta abar ere hortxe daude, bai-
na informazio iturri oparoena
toponimian dugu eta, hain
justu ere, nik bide horretatik
aurkitu nuen euskararen iza-
tea nire inguruan.

**Aldaketa handirik nabaritu
duzu euskaltzain oso izenda-
tu zintuztenetik?**
Aldaketarik nabarmenena da
lehen Euskaltzaindiko zeregin
akademikoetan lan handia
nuela eta [barrez] hori ez zaida-
la hain justu murriztu, biderka-
tu baino. Kontua da horrelako
gauzetan oso gustura lan egi-
ten dudala, baina denbora falta
dut arazoa. Hori da aldaketarik
nabarmenena. Askok dago egite-
ko onomastikaren esparruan,

eta horrekin lotuta egon daite-
ke duela bi aste izan genuen
onomastika jardunaldia eta
hortik datozen lanak. Hiru lan
garrantzitsu aurkeztu geni-
tuen, baina askoz gehiago da
abian duguna, eta gure hori-
zontean hurbil ikusten duguna.
Zeregin ugari dago.

**Batzordeko talde-lana era-
mankorra da?**
Nik uste dut edozein esparru-
tan, lan eremuan ere bai, lana
hobea izateko faktore batzuk
behar direla, eta horietako bat
elkarrekiko konfiantza da, eta
giro egokia. Hori gabe nik uste
dut ezer gutxi egin daitekeela.
Eta guk hori badugu gure arte-
an. Ez dakit gauza hauek kan-
potik nola ikusten diren, baina
gainera, hor gauden guztiona
ekarpen altruista da; azken ba-
tean, dakiguna eta gure onena
ematen ahalegintzen gara eus-
kararen mesederako eta gizar-
tearen onurarako. Honekin ez
dugu inolako dominarik papa-
rretik eskegi nahi, euskarareki-
ko maitasunagatik egiten da.

Ikertzaile asko zarete?
Onomastikaren arloan, toponi-
miaren ikerketan bagabiltza ba-
tzuk Onomastika Batzordearen
inguruan eta beste batzuk be-
ren kabuz; egia esan, oso gutxi
gara, eta jende gaztea ere behar
da. Ikusten dut onomastikaren
esparrua ez dagoela gaur egu-
nean unibertsitate munduan
oso txertatuta, esan dezagun
horrela, eta hori pena da. Edo-
nola ere, bada bere ekarpena
egiten dabilen jenderik. Ono-
mastika Batzordearen lehenta-
sunezko egitekoen artean iker-
tzaile hauekiko harremana
bultzatzea eta sendotzea dago.
Komunikazio zubi bat eraiki
behar dugu, eta horretan ari ga-
ra. Gero, nor bere arloan eta be-
re independentziarekin arituko

**ROBERTO GONZALEZ
DE VIÑASPRE**
EUSKALTZAINA

lazko otsailetik euskaltzain oso, joan den
maiatzaren 5ean irakurri zuen Trebiñun
sarrera-hitzaldia, aldarrikapen ukitu
nabarmena izan zuena, bizileku izan duen
Euskararen Herriko lur haren omenez.

Xabier Izaga Gonzalez

da, baina nik uste dut egiten den ahalegina baliagarria izango zaigula indarrak batzeko, behar denean eta posible denean, nor bere aldetik, batzuetan modu isolatuan, ibili gabe. Datorren udazkenean bilera egingo dugu, jakin behar dugu zeintzuk diren ikertzaile horien kezka, edo asmoak, zer lehen-tasun ildo ikusten dituzten, gu-reak ere erakutsi...

Zer irizpide dituzue toponimo bat proposatzeko?

Oso konplexua da, eta oso zabala, baina pixka bat oro har esanda ulertu behar dugu gure toponimoak, gure leku-izenak, eta ez naiz orain ari hainbeste herrien edo hirien izenez, leku-izenez baizik, lursail ttikiez eta, milaka eta milaka diren horiez. Izugarrizko altxorra dira, izugarrizko ondarea. Gure aurreko-engandik iritsi zaizkigu, gehienbat ahoz, baina dokumentatuta ere bai, paper zaharretan, XVI. mendetik aurrera-koak, eta dokumentuetan ere badago jarraitutasun bat. Normalizatzeko orduan, jarraitutasun horri erreparatu behar zaio. Lehengoengandik hartu dugu eta, jakina, lehen euskara ez zen ofiziala, hizkuntza estandarra ere azken hamarkadetan eduki dugu, baina orain behar ditugun tresnak baditugu eta izen horiek arautu behar dira, grafia aldetik edo osaera aldetik. Gero gugandik aurrera iraun beharko dute, hala behar du ondare horrek, osasuntsu eta duintasunez iraun, idatzizko erabilera normalizatua ere izan dezan. Bestetik, erregistroa ere errealtate bat da; esate baterako, Idiazabalgoek zergatik ez dute Izal esango? Ahozko erregistroa da, ondo dago, nahi badute. Baina idatziz Idiazabal beharko du. Garbi eduki behar da bi erregistro direla.



Zer hartzen da kontuan, orduan? Jarraitutasuna. Toponimoaren jarraitutasuna. Tradizioari erreparatu behar zaio, eta tradizioa ahozkoa eta idatzizkoa da. Baina kontuan hartu behar dugu idatzizkoa egonkorragoa, kontserbadoreagoa dela berez. Gaur egunean kontrakzio baten bitartez, esate baterako, *ibarla*, *ibarrola*, *alegia*, batek esan dezake horrela esaten dela betidanik. Jakina, betidanik... demografoek esaten

dute belaunaldi baten iraupena 30 urtekoa dela, eta horixe, edo 40 urte izan daitezke «betidanik» hori.

Idatzizkoak, baldin badago, balio handiagoa du, beraz?

Printzipioz, idatzizkoak indar gehiago du, ez bada ahozkotik asko aldentzen. Hori ere ez da ona. Forma osatuagoa izango da era batera idatziz, ahoz erabiltzen duenak ezagutu ahal izango duena. Eta, zer esanik

ez, toki batean izen bat XVI. mendean dokumentatu dutela esaten badute, badakitela nola esaten zen, baina gaur egungo erabileratik oso urrun badago, datu hori utzi beharko dugu balio historiko-linguistiko bezala eta ezin izango dugu besterik gabe ekarri gaur egungo erabilerara. Orekak bilatu behar dira.

Asko erabili izan diren izen batzuk, hala nola Biasteri edo



«Dakiguna eta gure onena ematen ahalegintzen gara euskararen mesederako eta gizartearen onurarako. Honekin ez dugu inolako dominarik paparretik eskegi nahi, euskararekiko maitasunagatik egiten da»

Eskuernaga, baztertu egin dituzte Euskaltzaindiak.

Euskaltzaindiak, eta edozein erakunde akademiko edo zientifikok, zintzotasunez lan egingo badu, atzera egiten jakin behar du datu berriek erakusten badute hasieran hartutako erabakia ez zela zuzena. Kontrakoa pentsaezina iruditzen zait.

Euskaltzaindiak lehenengo udal izendegia argitaratu zenean trantsizio garaia zen eta eskari sozial handia zegoen,

izenen euskal bertsioa behar zuen jendeak. Leku batzuetan, hortxe dago, bizi-bizirik, baina Arabako hegoaldera etorri gara, igual euskara orain dela mende asko galdu den inguruetara; orduan, presazko lana egin behar izan zen. Biasteriren kasuan, baziren datu batzuk eta uste izatekoa izan zen garai hartan Biasteri Guardiaren izena zela, baina gerora, handik urte batzuetara, dokumentu berriak agertuta, gehiago eta baliabide gehiagorekin ikertuta, eta oraindik gehiago ikertu behar da, ikusi genuen oker geundela. XVI. mendeko dokumentu batean agertu zen, kartografia zaharrean, mapan Guardiaren gainean. Horrek eman zuen bide okerra. Gerora konprobatu zen *Biasteri* Binasperi-ren forma okerra dela. Binasperi Lantziegon, Guardiatik hurbil dagoen herri txikitxo bat da, Viñaspre, nire deitura bezala.

Zergatik Guardia eta ez La-guardia?

Toloño mendilerroaren iparraldean, Lagranen, esate baterako, erlatiboki berandura arte hitz egin da euskaraz. XVIII. mendean erdian-edo galduko zen. Horko datuetan arakatzuz toponimo bat agertu zen: Guardia-bide. Bigarren osagaia 'bide' deanean, askotan aurretik herri baten izena esaten digu eta, beraz, orduko euskaldunek nola esaten zioten herri horri. 'Bide' hitzari zer herri izen dagoen itsatsita aztertuta, asko aurreratu dugu Arabako herrietan, baita Nafarroan ere.

Eskuernaga, aldiz, Euskaltzaindiak inoiz ontzat eman ez duen izena da. Horrek ere badu bere historia. Villabuena XVII. mendean pasatu zen hiribildu izatera, eta izena aldatu zioten. Ordura arte Villaescuerna zen. Kontua da Eskuernaga ez dela



Jaizki FONTANEDA | FOKU - EUSKALTZAINDIA

inoiz dokumentatu, ez du inolako tradizioz. Euskaltzaindiak ez du inoiz proposatu.

Onomastika jardunaldian 500en bat pertsona-izen neutro onartu dituzue. Oraindik badago lege arazorik?

Bai, modu ohargarrian ireki nahi izan dugu bide hori, eta datozen hilabeteetan askoz gehiago onartuko ditugu. Izen mistoen aldetik zerrenda hori nabarmen zabalduko da. Ez horiek bakarrik, izen txikigarriak ere badaude.

Espainiako 1957ko Erregistro Zibilararen Legeak «sexuari buruz okerra eragiten duten izenak» debekatzen ditu. 2011n lege berria etorri da, baina osorik indarrean jartzea falta da, eta puntu konkretu horri dagokionez, atzeratzen ari da. Momen-

tuz, iragarri duten azken atzerapena 2020ko ekainera artekoa da. Pentsatzekoa da noizbait etorriko dela aldaketa, baina hori ez dagokio Euskaltzaindiari. Kontuan har dezagun, gainera, Euskaltzaindia Euskal Herri osorako dugun erakundea dela, eta Frantziako Estatuan legeria bestelakoa dela alde horretatik. XX. mendean azken hamarkadatik ez du debekurik jartzen sexu kontu hori dela eta; dena dela, haurren izena gurasoek aukeratuko dutela badio ere, Erregistro Zibileko funtzionarioa behartuta dago desegokia iruditzen zaiona —ez du zehazten— epaileari jakinaraztera, eta hark erabakitzen du. Hemen, Euskal Herrian, argi esan beharra dago Euskaltzaindiak ez duela izenik debekatzen, hori ez da bere es-

«Euskaltzaindiak, eta edozein erakunde akademiko edo zientifikok, zintzotasunez lan egingo badu, atzera egiten jakin behar du datu berriek erakusten badute hasieran hartutako erabakia ez zela zuzena»

parrua. Euskaltzaindiaren zeregina eta betebeharra da esatea euskarazko izenak euskara estandarrean nolakoak izan behar duten. Eta gero, jendea iri aukerak eskura jartzea, espiritu ireki eta dinamikoarekin.

Euskaltzaindian, Patxi Urribarrenen lekua bete duzu. Hura ere izan zenuen gogoan sarre-ra-hitzaldian.

Bai, hala da, eta esan nahi nuen nahiko modu grafikoan esan nuen: biok aulki bera partekatzen dugu, oso modu onean. Ekitaldi askotxotan batera ibiltzen gara; esate baterako, oso polita izan zen azken Korrikaren bukaeran, Gasteizen, Euskaltzaindiaren izenean Patxi eta biok egin genuen kilometroa, elkarrekin lekukoa eramanda. Benetan pozgarria.

7^{haizetara}

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN ZURE KIOSKOAN SALGAI



Habana ezezaguna Saltsa anitzeko txokoak

Hainbestetan jasoa argazkietan, hainbestetan kontatua, Kubako hiriburuak beti du zerbait berria eskaintzeko. 500 urte betetzear dagoenean, bere txoko jator eta ezezagunen bila ibili gara.

Eta gainera: Maharajaren pare Bikaner hirian • Etiopiako Omo harana, iraganaren itzulera • Azken kataroaren urratsak Lleidan • Seuleko taupadak neurtzen

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7^{haizetara}

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

Makilak

Antton Izagirre

Pozarren, makila eskuetan, ikusi ditugu han eta hemengo alka-teak izendatu berritan. Ba-tzuentzat euskal makila izango dena, besteek “euskal” adierarik gabe, aginte-makila soil-soilik nahiago. Sin-bolismo handikoa eskuetan dutena. Makila errespetua, justizia, agintea, zintzotasunaren ikur unibertsala izan da euskaldunontzat.

Ez dakit sinbolismo bera aitortuko zioten alkate izendatu berriek eskue-tan zutenari, baina sinbologia uniber-tsalaren gainetik, norberaren esanahi partikularrak utziko duen arrastoa edo

aztarna izango da lekuko. Ikusi ditugu umiltasunez herritarrei men eginaz ai-tortza egin dutenak, tartean baita ere koherentziari zaputz eginda harroke-riaz altxa dutenak; baita besteen aurka jarduteko, zu kendu ni jartzeko, beste helbururik gabe, jaso dutenak ere.

Eta horretan, nago, makilak ez duela denen buruan esangura bera. Izango da askorentzat herritarrek berarengan jarritako konfiantzaren ikur, herriaren aurrean hartutako konpromisoaren seinale.

Halere, aurreko garaiek erakutsi di-gute, zenbaitek agintekeria eta jaun-

txokeriaren marka bilakatu nahi izan dutela. Edo norberaren interesen alde-ko aukera baliatzeko erabili dutela, edo “egoa” puzteko bitartekoa izan dutela, edota emandako hitzari eta aginduta-koari muzin egin diotela.

Halakoetarako badu gure mitologian makilak abilezia berezia, “makilakixki-ren” magia gehiegikeria, gezur eta oker guztien aurrean apalduko ditue-na.

«Eta hala bazan eta ez bazan...» lau urteren buruan herritarron aukerak hor iraungo du makilari dagokion oho-rea itzultzeko. •

Irtenbidera

Miren Azkarate
Badiola

Irtenbidera. Hain zuzen, arazo, ko-rapilo eta gatazkarenera. Hori hel-muga hartuta gauzatutako lanaga-tik epaituko dituzte 47 lagun, ezagun, kide eta senide datorren irai-laren 16tik aurrera.

Berriro ere 18/98 makroepaiketa hartan ikusi genituen irudiak ikusiko ditugu gutxi barru 11/13 honetan. Eus-kal herritar mordo bat astean bi edo hiru egunetan Madrilera jaitsi beha-rrean, horrek suposatzen duen gastu ekonomiko, animiko eta psikologikoa-

rekin. Berriro ere beraien lana eta bizi-tza erabat hankaz gora jarrita.

Zein da delitua? Ezagun mordoxka-re-na, euskal preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioak egitea. Besteena? Haien abokatu edo psikologo izatea. Beste batzuena? Haien senide izatea. Eta zein gehiago? Presoen eta kanpoko edonoren arteko harremanen zubi iza-teagatik duela urteak atxilotutako pre-so ohiak ere badira tartean.

Azken finean, elkartasuna da epaitu-ko dutena. Tartean dira nire abokatuak

izandakoak –gaur egun horietako bat la-guna dudana–, izugarrizko lana egin du-tenak, inoiz behar bezala eskertu ez die-dan lana. Nire izebatxoari buruz zer esan? Beti, nahiz eta banatuta eta sakaba-natuta egon garen, ondoan izan dudana. Eta ezin aipatu gabe utzi inondik inora azken urteetan izugarri lagundu didan psikologoa eta lagun handia.

Irtenbidera. Kalera, auzora, herrira... Elkartasuna, maitasuna, babesa, lagun-tza, goxotasuna, indarra, sendabideak... ezin dira delitu izan!!! •



Irati Alcantarilla bertsolari eta futbolari urruñarra. Ekainaren hasieran jantzi zuen Eskolarteko txapela. Guillaume FAUVEAU

Urruñarra da eta dato-
rren aben-
duan bete-
ko ditu 18
urte. Ekai-
naren 8an Saran jokatu zen Es-
kolarteko Bertsolari Txapelke-
tan txapela etxeratu zuen.
Hilabete inguru lehenago, Pla-
zatic Gaztetzera sariketan ere
irabazle izan zen. Aurten plaza
dezente egiten ari da, Euskal
Herri osoan barna, eta inoiz
baino bertsolariago sentitzen
omen da. «Ez dut sentitzen on-
do egin beharra eta agian ho-
rregatik, ondo egiten dut». Une
gozoa bizi du, bere bi pa-
sioekin gozatzen ari baita; ber-
tsolaritza eta futbola. Orain-
txe fitxatu du Oiartzungo
Kirol Elkartek.

«Urruñan bizi naiz, baina
futbolean Oiartzunen joka-
tzen dut orain eta bertso es-
kolan Irunen ibiltzen naiz.
Irun inguruan asko mugitzen

infraganti

IRATI ALCANTARILLA

Euskal Herriko Eskolarteko txapela etxeratu berri du urruñar gazteak. Oraindik 18 urteak bete gabe, bertsolaritzan eta futbolean polito egiten ari da bidea. Aurten Oiartzunen jokatu du. Borrokalaria da, «bizitzak horrela egina», eta garbi dauka zer esan nahi duen eta nola. Bertsolaria eta futbolaria eta, oraingoz, bietan segitzeko asmoz.

naiz. Baina eskolan Seaskan aritu izan naiz beti». Orain Irakasle Ikasketetako gradu bat egingo du.

Eskolartekoa urruñar batek irabazi duela nabarmentzen dugun unetik, bistan uzten ditugu hainbat estereotipo. Eta horrekin konturatuta dago Alcantarilla. «Konturatzen naiz Hego Euskal Herrikoen-
tzat Ipar Euskal Herria oso

aparte dagoela. Niri, adibidez, harrigarria egiten zait irundar batentzat Urruña Tolosa bai-
no urrunago egotea. Hemen-
txe dago, bost minutura. Egia da beste mundu bat balitz be-
zala ikusten dutela, eta mun-
du beraren parte garela. Baina
Iparraldekoentzat ere Hegoal-
dea oso urruti dago. Bi estatu-
ren arteko marran bizitzearen
ondorioa izango da».

Urruñako ikastolan hasi zen bertsora gerturatzen, baina etxean ere jaso du bertsozale-
tasuna. «Hasieran idatziz ba-
karrik egiten genuen. Bat-bate-
an 12-13 urterekin hasi
nintzen, eta gero eta gustura-
go sentitzen naiz bertsotan.
Bertsolari sentitzen naiz».

JENDAURREAN LASAI SAMAR

Plazak, jendaurrekoak, berti-
gorik ematen ote dion galde-
tuta, lasai erantzuten du. «Ha-
sieran banuen beldur hori.
Baina jendaurrean bertsotan
hasi nintzenean, konturatu
nintzen publikoa ez dudala
ikusten, nire buruarekin ko-
nektatzen dut erabat eta ba-
rrura begira egoten naiz. Pu-
blikoak baino gehiago
kezkatzen nau bertsokideak
askotan. Egokitu izan zait pun-
tako bertsolariekin aritzea,
Unai Iturriagarekin adibidez,
eta orduan bai sentitu dut
maila eman beharraren pre-
sioa. Baina publikoaren pre-
sioak ez nau estutzen. Nabari-
tu izan dut, eta zorte handia
dela uste dut, publikoak oso
ondo erantzuten diola nire
bertsokerari, gustatu egiten
zaiela nire esateko modua.
Gaztea eta hasiberria naizela-
ko izango da agian».

Bertsokideek, baina, eman
diote abisua: berriaren etiketa
ez da betirako, iraungi egiten
da. «Bai, esan didate eta ni ere
konturatu naiz. Publikoak ge-
ro eta gehiago espero du ni-
gandik. Ea asmatzen duan
hori kudeatzen».


Bertsolariak zer esango eta
nola esango, horri begira ego-
ten da entzulea. Eta bertsolari
gazteari gerta dakioke artean
bizitu gabekoari kantatu beha-
rra. «Saiatzen naiz ondo infor-
matua egoten, albisteak jarrai-
tzen. Komeni da, gainera,
kantatu behar duzun herriari

buruz ere informazio egunera-tua izatea. Ariketa hori egiten dut. Baina uste dut bertsolari ez banintz ere, egingo nukeela. Gustatzen zait gure munduan zer gertatzen den jakitea». Oraingoz ez omen zaio gertatu zer esan ez dakiela geratzea gai baten aurrean. «Normalean, beti izan dut zer esan eman dizkidaten gaien inguruan. Behin gertatu zitzaidan ez nekiela zer esan, eta horixe esan nuen bertsotan; ez dakit zer esan. Oso ondo funtzionatu zuen gainera».

Goi mailako futbolaria ere bada Irati Alcantarilla. Orain arte Irungo Mariño taldean aritu da, Euskal Ligan, eta aurtun Oiartzun Kirol Elkartek fitxatu du. «Borrokalaria naiz, horrela definituko nuke nire burua. Hori etxetik jaso dut, gurasoen eskutik. Horrela izatea egokitu zait».

BORROKALARIA

Gurasoak donostiarrak ditu, baina Urruñan bizi dira aspal-ditik. Irati Alcantarilla motxiladun umea izan da, aita eta ama kartzelan izan baititu. «Dagoeneko kendu dut motxila, baina egia da pisu handia zuela. Pozten naiz orain horri buruz gehiago hitz egiten delako, lehen ekidin egiten zen motxiladun haurren gaia. Hiru urte nituela atxilotu zituzten gurasoak. Ama bi urte eta erdi egon zen espetxean eta aita zortzi-bederatzi urte. Baina ama kalera atera zenean, bost urtez lehengusuekin bizitzera behartu gintuzten. Hori pasata, ama eta biok bakarrik bizi izan gara, aita askatu zuten arte. Uste dut borrokalaria izatea beste erremediorik ez dudala izan», kontatu du irriño batekin. Futbola, bertsolaritza eta ikasketak direla medio, joan-etorrian ibiltzen da Urru-



Alcantarilla Sarako saioan, txapela jantzi berritan. GAUR8

«Nabaritu izan dut, eta zorte handia da, publikoak oso ondo erantzuten diola nire bertsokerari, gustatu egiten zaiela nire esateko modua. Gaztea eta hasiberria naizelako agian»

Motxiladun umea izan da, aita eta ama kartzelan izan baititu. «Dagoeneko kendu dut motxila, baina egia da pisua zuela. Pozten naiz orain horri buruz gehiago hitz egiten delako»

ñatik eta oraingoz aita da bere txoferra.

«Orain arte astean hirutan entrenatzen ginen eta gero nire kasa ere aritzen nintzen. Pentsatzen dut Oiartzunen antzeko arituko garela. Iaz lesio bat izan nuen bizkarrean eta hilabete batzuetan entrenatu gabe aritu naiz. Ea nola hasten dudan denboraldia».

Emakumeen futbola azkenaldian lortzen ari den ikusgarritasunarekin pozik dagoen arren, begiratu kritikoaz

hausnartzen du. «Pentsatzen dut futbola dirua dela eta emakumeak akaso orain hasi garela dirua ematen edo dirua emateko aukerak erakusten. Baina klubean artean lehia handi bat ikusten dut, nor baino nor feministago agertzeko, etiketa hori nahi dute, baina gero sakonean ez dakit benetakoa lana egiteko prest ote dauden. Alde batetik futbolaren alde nago, baina, bestetik, futbolaren oso kontra. Taldeko lana gustatzen zait, baina futbolak dakartzan interesak eta dirua ez zaizkit batere gustatzen».

Eta, bertsolaritzaz, zer gustatzen zaio eta zer ez? «Gustatzen zaizkit gai bat entzuten dudanean nire barruan sortzen diren istorioak eta gustatzen zait jendeak nik esaten dudana entzuteko interesa izatea. Eta ez zait gustatzen poto egitea. Nire ustez, ez luke horrela izan behar, baina potoa da bertsolari batek egin dezakeen hanka-sartze larrienetakoa. Euskara akats larriak berdin epaitu beharko lirateke nire ustez, baina ez da horrela gertatzen».

Kantaera ederra eta indartsua dauka Alcantarillak. «Asko gustatzen zait abestea, beti ibiltzen naiz kantuan. Tira, beti ibiltzen naiz bertsotan, dutxan, etxean, bidean... ez naiz abeslaria, bertsolaria naiz».

FUTBOLA ETA BERTSOA, BIAK

Bertsolaria eta futbolaria. Buruak eta gorputzak elkar osatu egiten ote dute? «Normalean, bertso saio bat baino lehen, hiru egun gaizki pasatzen ditut; jan gabe eta lo egin gabe. Horrek kalte egiten dit futbollean jokatzeko. Bertsoak eragin dit futbollean, baina aldrebes ez, futbolak ez dit eragin bertsotan. Aukeratu beharra-

ren presioa ere sentitu dut; futbola edo bertsoa, bietako bat. Baina, oraingoz, biak egiten segitu nahi dut».

Tira, futbola eta bertsoa, gorputza eta burua esan dugu, baina ez da erabat zuzena, gorputzak ere presentzia baitauka bertsolaritzan. Eta emakumeen gorputzak, gainera, presentzia berezia, lupa zorrotzek estutua. «Saio batera joatean, ez dit buruhauste handirik sortzen itxurak; nola joan, zer jantzi... ni ni naiz eta ez dit batere eragiten jendeak nitaz pentsatzen duenak. Egunaren arabera bake-roekin edo txandalarekin joan naiteke. Saiatzen naiz gauza horiei garrantzi handirik ez ematen».

Hala ere, emakume izatea gatik sentitu izan du pisurik. «Bertso-eskolan gizonezkoekin aritzea egokitu zait. Bi emakume gaude, baina besteak ez du bat-batean egiten, idatziz bakarrik. Nabaritu dut gaiak emateko orduan, beti egokitzen zaidala amaren, alabaren... papera. Bolada batean erreta sentitu nintzen beti paper beretik aritu beharragatik. Baina bertso-eskolan adierazi nuen eta aldaketa gertatu da. Guztiz ulertua izan nintzen eta agian horregatik kontatu nuen, banekielako guztiz ulertua izango nintzela».

Baina, orokorrean, pentsatzen duena eta sentitzen duena kanporatzearen zale da. «Barruan kalte egingo didaten gauzak barruan gordetzea ez zait gustatzen». Horrelakoxea da aurtengo Eskolarteko txapelduna. «Gauza handia lortu dut, baina handiagoak ere lor daitezke. Eta bidean jarraituko dut». •



Izaro Goienetxea Urkizu

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko ikertzailea

Musika eta teknologia

Azken urteetan teknologiaren garapenaren ondorioz musika kontsumitzeko era guztiz aldatu da, garai bateko disko eta kaseteetatik musika guztia poltsikoan eraman ahal izatera pasatu gara urte gutxitan. Baina ez da hori teknologiaren garapenak ekarri digun abantaila bakarra. Ezagutzen ez dugun abesti bat entzutean segundo gutxitan identifikatu dezakegu Shazam bezalako aplikazioei esker. Baina nola funtzionatzen dute aplikazio horiek? Guk abesten diegunean zergatik ez dute doinua identifikatzen?

Shazamek grabatutako abesti zati bat jaso eta grabaketa honen espektrograma bat sortzen du, non denboran zehar zein frekuentzia grabatu diren azaltzen den. Espektrograma horretatik puntu jakin batzuk ateratzen ditu, grabatutakoaren hatz marka moduko batzuk, eta datu base batean dauzkan gainerako hatz markekin konparatzen ditu zein abestiri dagokien aurkitzeko. Grabaketa batek beste baten hatz marka bera eduki ahal izateko frekuentzia berberak izan behar dituzte biek; hau da, grabatutakoa datu basean dagoen abesti baten zati baten berdina izan behar da. Horrelako aplikazioak eskura dauzkagu edozein telefonotan, baina teknologia askoz gauza gehiago lor ditzake musikaren arloan.

Abesti bat zein generotakoa den esan dezaketen metodoak garatu dira dagoeneko, bai abestiaren grabaketa bat, bai partituraren antzeko errepresentazio bat erabiliz. Beste metodo batzuk gai dira pieza bat zein konpositore klasikok sortu zuen edo zein konpositoreren influentzia izan dezakeen esateko. Besteak beste, ikasketa automatikoko teknikari esker egin daitezke ataza hauek guztiak.

Teknika horiek corpus batetik abiatzen dira, corpusean dauden piezen klasea edo etiketa (generoa, sortzailea edo beste ezaugarri bat) aurretik ezaguna izanik. Corpuseko pieza horietatik ikasi egiten dute ikasketa automatikoko teknikak, eta erregela bat sortzen dute, ezagutzen ez dituzten pieza berrien klasea aurrean deza-keena.

Horrelako teknikak musika era automatikokoan sortzeko aukera ere ematen dute. Adibide ezaguna da Google garatzen ari den Magenta proiektua. Bach-en urteurrena ospatzeko, haren estiloan edozein doinu harmonizatzeko gai den metodoa aurkeztu zuten 'doodle' batekin. Metodoak Bach-en piezak aztertzen ditu, bere ezaugarriak ikasi eta ezaugarri horiei jarraituz ematen zaion doinuaren harmoniak sortzeko. Spotify-k ere

badauka gai hauetan dabilen ikerketa talde bat, musikariei sorkuntza prozesuan lagunduko dieten tresnak sortzea helburu duena. Bideo-jokoen musika sortzeko ere erabiltzen dira sorkuntza automatikoko teknikak, baita film laburretako musika sortzeko ere.

Nahiz eta hainbat metodo sortu diren musikaren sorkuntzarako, horiek ezin dute gizakiaren sorkuntza prozesua imitatu. Ezin dituzte konpositore batek musika sortzean kontuan hartzen dituen faktore guztiak aintzat hartu, horietako batzuk abstraktuak baitira, bere gustu eta sentsazioek ere eragina baitute sortzen duen horretan. Beraz, lasai esan dezakegu oraindik behintzat teknologia ez duela konpositore eta musikarien lana ordezkatzeko, baina kasu askotan horien sorkuntza prozesuan lagungarri izan daiteke. •




Musika era automatikokoan sortzeko aukerak ugaritzen ari dira.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Nicolas SALINAS | TUTERAKO UDAL ARTXIBOA

MURCHANTEN, PILOTAN, 1905. URTEAN

Tuteratik Tarazonara zihoan trenbideko linea 1895. urtean inauguratu zen. Bide hori Murchantetik pasatzen zen eta gelto-
kia Nafarroako Erriberako herri horretatik bi kilometrora zegoen. XIX. mendearen amaieran Murchantek 1.800 biztanle zi-
tuen eta ekonomia-jarduera nagusia mahastien laborantza zen, ardoa ekoizteko. 1897. urtean filoxera izurrite garrantzitsu
bat gertatu zen eta mahastien jarduera ia erabat galdu zen. Ondorioz, XX. mende hasieran zerealen eta erremolatxaren
ekoizpenak indarra hartu zuen. Goiko partean ageri den irudia Murchanten jaso da, 1905. urtean, pilota partida batean.
Egilea Tuteran bizi zen Nicolas Salinas (1872-1955) argazkilari afizionatua izan zen. Salinasek garaiko Tuterako gizartea-
ren testigantza jaso zuen argazkietan eta Nafarroako Erriberako inguru horrek hogeita hamar urte luzetan izandako alda-
keta urbanistikoak ere jaso zituen.

Parte hartu...

...eta irabazi sari zoragarri hauek!



1

EROSKI viajes

MADEIRARA BIDAIA.

Astebete (2 pertsona).

Bidaia data: Abuztuaren 27tik irailaren 2ra.

Joan-etorriak aireportua-hotela-aireportua.

Egonaldia 4* dituen hotelean.

Bilbo irteera (abuztuaren 27an).

Bidaia-asegurua eta aireportuko tasak barne.



4-5



7 gau.

2 heldu + adingabe 1 (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.



EROSKI viajes

2

7 gau.

6 heldu + 3 adingabe (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.

3

7 gau.

4 heldu + 2 adingabe (2-10 urte).

Egonaldiaren data: 2019-9-15tik

2019-10-11ra (hotelen

eskuragarritasunaren arabera).

3* hotela/Mantenu erdian.

Egonaldi-tasak irabazlearen kontura.

EGONALDIA COSTA DAURADAN (KATALUNIA).



SAMAR
FOTO + VIDEO + IMAGEN DIGITAL

PUNTU ESTREN ZOZKETA.

3 ekintza-kamera
Ricoh WG-M1.



ZOZKETA PARTE-HARTZAILE HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Specialized MYKA 650B bizikleta 1 + Specialized kaskoa.

egonaldi Costa Dauradan

(2 heldu + adingabe 1).

50 NAIZ camiseta.



maestre



PARTE HARTU

NAIZeko
helbide honetan:

tourjokoa.naiz.eus

naiz:

DOAN

**PARTE HARTZAILE
BAKOITZAK
GEHIENEZ 3 TALDE
AUKERATU AHAL
IZANGO DITU.**

Bidal iezaguzu
zure proposamena

Ekainaren

27 tik

tourjokoa.naiz.eus
web orriaren bitartez

eta JOKATU!



► OHARRA

- Bidaietan edo egonaldietan, sariaz gozatzeko aukerarik ez izanez gero, laga daiteke, baina ezin dira datak aldatu.
- Lehen 5 sariak zerga-atxikipena izango dute. Ogasunerari indarreko araudia betez.

